

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2006.01.20

ARRASATE

Ezker Batua udal gobernutik kanpo utzi dute /4



JABIER ABALDE / BAI UDALATX

"Hasi dituzte Udalatxeko lanak, baina ez dakigu ezer horien gainean" /7

Goienkaria 2a

X TXOSTENAK
DEBAGOIENEAN
ERE BADAUDE



VI. urtea • 228. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

OÑATI

Herriaren garapena lantzko elkartea sortuko dute /6

Euskadiko Orkestrako zuzendari-gai, Iñigo Alberdi

Iñigo Alberdi, luzaroan Bergaran bizi den musikaria, Euskadiko Orkestra Sinfonikoko hurrengo zuzendari orokorra izan daiteke. Postua betetzeko hautagaietako bat da, eta hemendik bi astera jakinaraziko du Orkestrak behin betiko erabakia..

Izatez plazentziarra da Iñigo Alberdi, baina Bergaran bizi da luzaroan, eta Oñatiko aurrezki kutxa baten egiten du lan. Kla-bezina jotzen du eta musika irakaslea da. /4



Iñigo Alberdi.

DEBAGOIENA

Eskualdean 155,9 milioi inbertituko ditu Foru Aldundiak

Debagoinenak 155,9 milioi euroko aurrekontua du Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2006ko aurreikuspenetan. Hori da Gipuzkoan eskualdeka bigarren aurrekontu handiena, Donostialdearen ondoren. Kopuru horren zatirik garrantzitsuena Bidegiri dago-kio, Eibar-Gasteiz autobidea egiteko. /5

ASTEKO GAIA: IBARREKO OSTATUAK

Bisitariek, lo egiteko aukera asko

Hotel berria ireki dute orain dela gutxi Eskoriatzan; eta aurki besete bat zabaltzekotan dira.

Debagoina industria gunea izanda, enpresetara kanpotik datorren jendeari ostitu ematea du helburu hotelak.

Baina lan kontuengatik ez ezik, aisiaidiaz eta opor sasoia gozatzeria ere etorri ohi da jendea gurera. Hauek ere badute hotel horretan zein bestelako egoitzatan ostitu hartzeko aukera. Hotel, ostitu, landetxe... guztira 30etik

- Ibarrean 30 ostatutik gora daude bisitariak hartzeko
- Euskal Herrian, ohikoa den moduan, landetxeak dira nagusi

gora dira ibarrean bisitariak hartzeko prest daudenak.

Euskal Herriko hainbat txokotatik eterri ohi dira gehienak, eta baita Spainiatik ere, Kata-luniatik eta Madrildik, batez ere.

Gure ibarra toki estrategikoa dela diote ostituetako ardura-dunek. Turistak hiriburuetatik gertu daude gurean eta lantoki-tik ere bertan gainontzekoak.

Batzuk joan eta besteak eterri, gurean beti egongo da geratzeko leku egokirik. /2-3


- Aste barruan, langileak izaten dira hoteletako bezero
- Egonaldi laburrak egiten dituzte; batez beste, bi egunekoak



Eskoriatzako Mendigoya hoteleko langileak zuzendariarekin.

IRATI AGIRREZALDEGI

SUPER AMARAN autoa uztea ez zaizu ezer kostatuko



DEBAGOIENA/4-5 • HERRIZ HERRI/6 • IRITZIA/8 • KIROLA/10 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • ESKELA/19 • DENBORA-PASA/21 • TELEBISTA/22

Škoda Octavia Combi Berria. 20.040 €-tik AURERA



*Plan Preverbare.

1

SIMPLY CLEVER



Turistendako eta langilee

■ Egonaldiak, batez beste 1,8 egunekoak izan ziren iaz

■ Ibarrean 30 inguru hotel, ostatu eta landetxe daude

■ Debagoiena estrategikoa da turistendako

IRATI AGIRREAZALDEGI

Opor sasoiairekin lotzen ditugu gehienok hoteletako zein ostatuetako egonaldiak. Beste batzuek, ordea, lanarekin. Beharrak eraginda etxetik urrutti lan egin behar dutenek toki hauetan hartu ohi dute ostatu.

Gurera, lanera etortzen dira asko eta asko, eta opor sasoian baita aisialdia gozatzen ere. Batzuk joan bestea etorri, Debagoienak ostatua dirudi. Hotelak, ostatuak eta landetxeak zenbatuz gero, 30 inguru daude. Eskoriaztan ere ireki berri dute hotela.

Debagoineneko Mankomunitateko turismo sailak esan digunez, “Debagoinean enpresa asko egonda, lanetietara bisitan datozen langileak izaten dira aste barruan herrietako hotel eta ostatuetan gaua pasatzen dutenak. Asteburuetan eta udan zein beste oporraldietan Arantzazu inguru ostatuetara edo landetxeetara jo ohi dute kanpotik datozenek, eta hauiek, aisialdia aprobetxatzuz, turismoa egitera etorri ohi dira”.

TURISMOA ETA LANA

Hotel, ostatu eta landetxeetako hainbat arduradunekin egon gara, eta bat etorri dira Mankomunitateko esanekin.

“Askotariko jendea etortzen da gurera. Aste barruan, lanera datorren jendea; asteburuetan, mendi irteerak egiteko asmoz etortzen dira; familia giroko oporrak hemen igarotzen dituztenak ere badaude, baita arrazoi erlijiosoengatik gure ostatua aukeratzen dutenak ere. Irailean, beteta izaten dugu, bedera-




IRATI AGIRREAZALDEGI
Bezeroek euren neurriko zerbitzuak izaten dituzte eskura; telebista, esaterako.



GOIENKARIA
Kanpotik datozen bisitariek bertako jakiak dastatzeko aukera izaten dute.



IRATI AGIRREAZALDEGI
Jatordu bereziak hoteletan egin ohi ditu jende askok.



IRATI AGIRREAZALDEGI
Bezero zorrotzak ditu Mendigoia hotelak; eurak datozerako gertu izaten dira gelak.

tziurren dela eta”, esan digu Oñatiako Hospederiako Elvirak.

Egonaldiak ere, batzuenak luzeagoak izaten dira beste batzuenen aldean. “Pasadizoan datozenek gau bat edo bi egiten dituzte. Langileen egonaldiak, berriz, duten lanaren arabera-koak dira. Badira bi hilabeterako etortzen direnak eta bost egin dituenik ere bada. Turistek batez-bestetik hiru edo lau egun pasatzen dituzte hemen”. Euskal Estatistikako Erakundeko (Eustat) iazko datuen arabera, EAEko ostatuetako egonaldiak 1,8 egunekoak izan ziren batez-bestetik. Hala ere, kontuan hartzeko da abuztuan egonaldiak luzeagoak izan zirela, 2,21 egunekoak, hain zuzen ere.

Aste barruan langileak izaten dira bezeroak; astebaru eta oporetan turistak

JATORRIA

Nondik datozen galdetuta, bezeroen jatorria ere askotarikoa dela esan digute. Espainiako txoko ezberdin askotatik etorri ohi dira gehienak, baita atzerritik ere. Dena dela, bat etorri dira guztiak bezeroen artean kataluniarrak nagusi direla esatean.

Eustateko iazko datuen arabera, EAEn iaz 1.210.000 bezeroak hartu zuten ostatu: horietatik 267.089 Autonomia Erkidegokoa bertakoak izan ziren; Madril-dik etorriak 273.488; eta Kataluniakoak, berriz, 223.289.

Elgeta landetxeko Elenak esan digunez, “Kataluniatik etortzen dira turista gehienak, eta Madril-dik ere azken aldian bisi-

ta gehiago izan ditugu. Europa-ko beste hainbat txokotatik ere etortzen dira, gutxiago izan arren. Bestalde, Espaloia Antzokira etortzen diren kanpoko artistek ere gurean hartu ohi dute osta- tu. Bill Evans jazz musikaria hementxe izan zen, esaterako”.

HIRIBRUETATIK GERTU

Ostatu hartzeko Debagoiena zer-gatik aukeratzen duten jakin nahi izan dugu, eta gehienek esan digute leku estrategikoa dela. “Hiribruetatik gertu dago Debagoiena, eta eguneko txangoak egin ostean itzultzen dira hote-lera”. Batzuek aurrez gurean egondako familiakoek edo lagunek gomendatuta egiten dute

“Debagoineneko enpresetara datozen langile askok hiribruetan hartzen dute ostatu”

hona bisita; beste batzuek, Lamai-no Etxebarriko Maitek esan digun moduan, “erreferentzia-rik ez dutenek mapa harta eta Euskal Herrian erdi aldean koka-tuta dagoen tokira jotzen dute. Hemengo interes turistikoa ez da oso ezaguna, nahiz eta azken aldian gero eta jende gehiagok ezagutu”.

Beste batzuek, ordea, lan kon-tuengatik aukeratzen dute Debagoiena. “Industria gune oso garrantzitsua izanda, business hotel erako ostatua ireki dugu, lanetietara datozen langileek, komertzialek, enpresaburuek... eskatzen dituzten zerbitzuekin hornitua. Iristen direnerako dena gertu izatea nahi dute, eta zorro-tzak dira oso horrelako bezero-ak”, esan digu Eskoriatzan ireki berri duten Mendigoia hoteleko Jorgek. “Horri da hain zuzen, guk eskauntzen dieguna”.

Ibarreko ostatutik gehienak, baina, txikiak dira eta horrek bezeroenganako gertuko trautua ekarri ohi du. “Bezeroei giltza ematen diegu eta euren kasa ibil-zentz dira, batzuk etxean bezala.

Ostatuen jabeen arabera Kataluniarrak dira ibarrera gehien etortzen direnak

ndako 33 ostatu ibarrean

Konfiantza hartuz gero, badira jatorduak gurekin egiten dituztenak ere, batez ere denbora asko gurean pasatzen duten langileek”, esan digu Elgetako Elenak.

IBARREKO ESKAITZA

Debagoienean nahikoa eskaintza dagoen galdetuta, esan digute hori betetze mailak erakusten duela, eta horretan gorabeherak handiak izaten direla. EAEn plazak kontuan hartuta, betetze mai-la 48.30ekoia izan zen, iazko Eus-taten datuei erreparatuta.

Lamaino Etxeberriko Maite-ren esanetan, “lantoki eta enpre-setara kanpotik datozen langile, komertzial eta bisitariek bertan ostate hartuko balute, betetze maila altua izango lukete ibarreko ostate, landetxe eta hotelek. Baina enpresaburuek badi-rudi nahiago dutela hiriburu-teria bidaltzea euren bezeroak. Ahalegina egingo balitz, jende gehiagoren dako lana egongo litzateke ibarrean ostalaritzan”.

Mendigoiako Jorgek dio eskaintza murritza dela dauden eskarietarako: “Gurearen antze-rako hotelak nahi ditu jendeak; handiak, zerbitzu asko dituenak. Euskal Herrian, hala ere, hotel txikiak dira nagusi. Beraz, enpresaburu edo komertzial batek dituen eskari guztiak ez dituzte betetzen horrelako ostateak: askotan internet edo wi-fi bidezko konexiorik ez dago; kartara jatea nahi izaten dute... Gure hel-burua euren nahi horiek betetzea da eta ireki genuenetik hilabete eskas pasa den arren, betetzen ari garela uste dut”.

Aurki beste hotel bat ireki-tzekoak dira, eta orain artekoaz gain, sektoreak pixkanaka gora egingo du, eskaintzari dagokio-nez, behintzat. Dauden ostate-tara jendea etortzea da kontua. Etorkizunari begira, Mendigoiako Jorgek dio “bezeroak gure-ra, ostate eta hoteletara etorri-gero, horrek eragina izango du ibarreko herrietan, zerbitzuen atalean, batez ere, eta hori onu-ragarria da bailararendako”.

Debagoieneko hotelak eta ostateak

ALOJAMENDUA MAILA PLAZAK

ANTZUOLA

IBARRE	L	12
ARAMAIO	L	12
ETXEBARRI	L	6
MURU	L	10

ARETXABAleta

MITARTE GARAI	L	12
JAUSORO	O	8
ARRASATE	O**	22
MONDRAGON	H***	68
MUSAKOLA	O**	19
URIZAR	P**	14
UXARTE	P**	10
ARTEAGA	L	12

BERGARA

ARIZNOA	H*	31
BERGARA	O**	26
ORMAZABAL	H**	29
ZABALA	O*	10
LAMAINO ETXEERRI	L	12
ANDURI	L	6

ELGETA

ELGETA	L	12
EGUZKITZA	L	8
BARRENENGUA	L	12

ESKORIATZA

AREANO	L	12
MENDIGOIA	H***	160

GATZAGA

GAZTAINUZKETA	ME	30
ATERBE	L	9

ONATI

HOSPEDERIA	O*	85
ETXE-AUNDI	H**	20
ETXEBERRIA	O*	12
GOIKO BENTA	O**	20
ONGI-ETORRI	H*	36
SINDIKA	H*	74
SORALUZE	H**	27
ARREGI	L	12

GUZTIRA

848

H: Hotel • L: Landetxea • O: Ostatua
ME: Mendi Etxeak • P: Pentsioa



Oporretan eta asteburuetan etortzen dira turistak landetxetara; Lamaino-Etxeberri izan ziren udan argazkikoak.



Bergarako erdialdean dago Ormazabal hotela; kanpoko eta bertako bezeroak hartzen dituze.

OKUPAZIOA

Espainiako hotelen betetze mailak gora egin zuen 2005ean

Hainbat urtetan maila berean jarraitu ostean, iaz Espainiako hotelen betetze mailak gora egin zuen. Hori diote Espainiako Hotelen eta Ostatuen Konfederazioak egindako azterketa baten emaitzek. Prezioak mantentzeak eta konpainien errentegarritasuna jaistea eragina izan zuen gorakadan. Konfederazioak bide batez eskatu du erakundeeak ahalegin berezia egitea kostaldeko turismoa bultzatzeko. Nahiz eta honek gure ibarrean eraginik ez izan.

ERAKUSTAZOKAK

Euskadik 1.000 metroko postu bat izango du Fitur azokan modua

Asko dira turismoarekin eta ostalari-zarekin lotutako erakustazokak. Gure inguruan ezagunena beharbada Fitur azoka da. Aurtzen urtarrilaren 25etik 29ra bitartean izango da Madrilen. Bertan Euskadik 1.000 metroko postu bat izango du; eta turismo kanpaina berriko irudiak izango dira ikusgai.

Bestalde, datorren martxoaren 16tik 19ra bitartean Sevatur (Salon de Evasion y Turismo) delakoa izango da Donostiako Kursaalen.

INTERNET

Ostatuen informazioa lortu eta erretserbak egin daitezke sarean

Sarean hotel, ostate eta landetxeen gaineko gero eta informazio gehiago aurki genezake. Asko dira webgunea duten ostateak, eta erretserbak internet bidez egiteko aukera ematen dutenak gainera. Hotel zehatzen bila barik, oro har hotelen gaineko informazio bila jotzen badugu ere aukera oso da zabala: www.hotelsearch.com helbidean Espainiako ostateen berri aurki daiteke; www.todohtel.com helbidean dago Espainiako ostateen gaineko datu base osotuenetarikoa.

ATZERRITARRAK

Frantziatik etortzen da Espainiaz kanpoko bisitari kopuru altuena

Iaz Espainiatik kanpoko 500.000 atzerritarrek hartu zuten ostate EAeko ostalaritzako egoitzetan. Frantziarrak izan ziren nagusi, guztira, bertatik 113.724 bisitari etorri baitziren. Zerrendan hurrengoak dira Erresuma Batua 62.089 bisitari-rekin; Alemania 52.826rekim eta Italia 44.401 bezerorekin.

Urtetik urtera gorantz doa EAeko ostateetara etortzen diren atzerritarren kopurua. Horren adibide da 1992an 176.369 baino ez zirela izan.

Arrasateko EB kaleratuta, gehiengo gabe geratu da udal gobernu taldea

Tokiko Gobernu Batzarrak Ezker Batua kanporatu zuen joan den martitzenean

GOIENA

Ezker Batua Arrasateko Udal Gobernukit kanporatu du Tokiko Gobernu Batzarrak. La Caixak egin beharreko etxebizitzentz aferak eten du desadostasunez betetako elkarlana. EAJ-EA eta Aralarrek gehiengo absolutua galdu dute horrela.

Ezker Batuko Arrasateko hiru zinegotziak Udal Gobernukit kanpo utzi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak. Joan den martitzenean jakinarazi zuten hori. Kaleratutako hiru zinegotziek, Jose Antonio Bazek, Ander Rodriguezek eta Joseba Ugalde, "burua tente eta eskuak garbi" doazela azaldu zuten, eta euren iritzia eman zuten prentsurreko baten, joan den eguztenean. Ignazio Lakuntzak, Arrasateko alkateak, honela azaldu zion harutzako erabakia GOITBri: "Prestio menpean lan egitea zaila da, baina zailagoa ikusten da gobernu talde moduan egotea eta oposizioak egitea, biak batera". Joseba Ugalde, berriz, salatu du kaleratzearekin behin baino gehiagotan mehatxatu zutela: "Ezker Batuak ezin du onartu txantajea duen planteamendu bat: edo hau onartu, edo kalera zoaz. Hori bost aldiz sortu da".

Arrasateko Udalak La Caixa-rekin babes ofizialeko etxebizitzak egiteko proiektuari babesea ez ematea izan da kaleratzearen arrazoia, Arrasateko alkateak esan zuenez. Ezker Batuak aurkako bota eman zion La Caixa-ren proiektuari, babestutako etxebizitzak egiteko lursail bat merkatari elkarte bati uztea "onartzina" zela esanez.

Erabaki horren ondorioz, Arrasateko Udal Gobernua EAJ-EA koalizioak eta Aralarrek osatuta geratuko da, eta 10 botorekin geratzen dira, gehiengo absolututik boto batera.



Jose Antonio Bazek, Joseba Ugalde eta Ander Rodriguezek, Arrasateko EBko zinegotziek, prentsurreko egin zuten eguztenean.

ALDERDIEN IRITZIAK

Arrasateko Udalean ordezkaritza duten gainerako alderdiak ere gertakari horren gaineko iritzia eman dute.

Hala, Udal Gobernuko partaide den EAko Luis Etxebarriarteunek honakoa esan du: "Nik ez diot erabakia ez ondo ez txarto dagoenik, baina Udal Gobernuan bazaude, Udal Gobernuan zaude, eta ez oposizioa egiteko". Beste partaideak, Aralarrek, prentsurreko egin zuen eguztenean, eta han aukako iritzia azaldu zuten: "Arrasateko Aralarrek ez du bat egiten alkateak hartutako erabakiaren, ezta moduarekin ere". Gezurtatu egin zuen alderdiak hainbat hedabidetan agertutako; Aralar ados zegoela, alegia. PPko Itziar Lamaraineak, azke-

Ezker Batuak "txantajea" salatu du; alkateak esan du "oposizioa" egiten ari zirela

Arrasateko Ezker Batuak, ordea, azalpen horiek "berandu eta gaizki" iritsi direla erantzun du.

PSE-EEko zinegotzi Paco Gartziaaren iritziz, "urrezko aukera dugu Udalean politika ezkerretik egiteko. Orain arte gauzak inposaketa egin dira, eta gaurtik aurrera, zorionez, adostasunak lortu beharko dira". PPko Itziar Lamaraineak, azke-

nik, hauxe esan zuen: "Alkateak ez du bere borondatearen aurkako ezer onartzen. Osoko bil-kuretan ikusten da zer egiten dute gehiengoarekin eta bere kalitatezko botoarekin proiektuak aurrera ateratzeko".

DESADOSTASUN ASKO

La Caixako etxebizitzena Ezker Batuak eta Udal Gobernukiz izan duten desadostasunetako bat besterik ez da izan: harrobien, hiltegiaren eta beste gai batzuen harira, Ezker Batuak eta EAJ-EAk ika-mikak izan dituzte.

Orain, Arrasateko EAJ-EAk eta Aralarrek akordioak bilatu beharko dituzte. Gainera, Garapen Estrategiko Saila, Ezker Batuari zegokiona, zeini emanago dioten erabaki beharko dute.

LABUR

Garaia, Parke Teknologikoen Elkartearen onartuta

Garaia Berrikuntza Gunea Euskadiko Parke Teknologikoen elkartean onartu dute. Joan den egubakoitzean beretsi zuen elkarteko batzar orokorrak erabaki hori. Bizkaia, Araba eta Donostiako parkeek osatzen zuten orain arte Euskadiko parkeen sarea.

Dementzien gaineko ikastaroa egin dute Oñatin

Hamasei lagunek parte hartu dute Oñatiko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak antolatutako dementzien gaineko ikastaroan, joan den aste osoan. Lahar elkartek eman du. Debagoieneko egoitzetako eta eguneko zentroetako langileak eta gaixoen senideak izan dira partaide gehienak, eta "oso gustura" ibili dira.

Idiazabal Gaztak Nikolas Segurola saritu du

Idiazabal Gazta jatorri izendapenak saria eman dio Arantzazuko Gomiztegi baserriko Nikolas Segurola artzainari joan den astean, iaz Seu d'Urgeleko lehiaketan bigarren saria lortu zuelako. Idiazabal Gaztaren izen ona zabaltzen laguntzeagatik saritu dute, beste hiru artzainekin batera.



Nikolas Segurola.

Sahararekin elkartasun karabananak zabalik jarraitzen du Bergaran

LEIRE KORTABARRIA

Saharara joango den Euskal Karabanan ekarpenea egiteko aukera dute oraindik Bergara, Antzuola eta Elgetakoek; izan ere, Bubisher elkarteak datozen egunotan itxiko du kanpaina.

Sahararekin elkartasun karabananako atuna, konpresak eta azukrea emateko aukera dago oraindik Debagoieneko herri batzuetan. Ia gehienetan Bubisher

elkarteak, baina produktu horiek saltzen dituzten denda guztietan zabalik dago kanpaina gaur, egubakoitzka, bitartean. Ikastetxeetan, astelehena arte egongo da parte hartzeko aukera.

Martitzenean antolatuko dute jasotako guztia, Donostiara bidaltzeko. Oraindik ez dakite zehazki zenbat jaso den, baina "beste urte batzuetakoaren bidetik" doala esan du Markos Segurola elkarteko kideak. Ikastetxeetan jasotzen da zatirik garrantziz.

tsuenetako bat, dio Bubisher elkarteak.

LEINTZ ETA OÑATI ALDEKO KANPAINA

Arrasaten, Aretxabaletan, Oñatin, Eskoriatzan eta Leintz Gatzagan, Nubi elkartearena arduratu da kanpainaz. Eurek bukatu zuten jasotzea, baina egunotan dabil-tza paketeak egiten. Elkartearena arduradunek esan dute beste urte batzuetan baino zerbaiz gutxiago jaso dutela. Iaz, 4.000 kilotik gora jaso zuten.

Iñigo Alberdi, pozik baina Orkestraren erabakiaren zain

GOIENA

Iñigo Alberdi musikaria, soraluztarra jaiotzez baina luzaroan Bergaran bizi dena, Euskadiko Orkestra Sinfonikoko zuzendari orokor izateko hautagaia da. Alberdik "pozik" hartu du aukera hori.

Iñigo Alberdi (Soraluze, 1973) da Euskadiko Orkestra Sinfonikoko zuzendari orokor bilhurtzeko hautagaitako bat. Erabakia hemendik bi astera hartuko du Orkes-

trak. Bitartean, Alberdik esan du "ilusio handiz" hartuko lukeela lan hori, baina beste hautagai batzuk ere badaudela eta "zain" dagoela.

Zuzendari berriak German Ormazabalaren lekua beteko du.

BIOGRAFIA

Alberdik Zuzenbidea ikasi du, Musika Pedagogian goi-tituluduna da, eta klabezin goi irakaslea. Easo Abesbatzako Kapera Gre-gorianistako kide izan da. Oñatioko banketxe baten dihardu.



Eibar-Gasteiz autobidearendako 133 milioitik gora ipiniko ditu Foru Aldundiak. Irudian, zati baten inaugurazioa, 2004ko udan.

Aldundiaren lurraldeka bigarren aurrekontu handiena, Debagoienari

Aurrekontuetan, 155,9 milioi euroko partida dago, gehiena AP-1endako

LEIRE KORTABARRIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak 155.978.584 milioi euro inbertituko ditu aurrekontua Debagoienean, lurralde osoan eskualdeka bigarren inbertsio handiena. Horren berri eman zuen Joan den astean Gipuzkoako Ahaldun Nagusiak.

Debagoinari dagokio Foru Aldundiaren bigarren inbertsioa aurreikuspen altuena 2006. urteko 155,9 milioi euro dira, Gipuzkoako eskualdeko bigarren inbertsio handiena, Donostialdearen ondoren (306,8 milioi euro). Informazio horren berri eman zuen Joan den astean Joxe Joan Gonzalez de Txabarrik, Ahaldun Nagusiak. Horrek esan nahi du

biztanleko 2.520 euro inguru dagoela, Gipuzkoako batez bestekoa baino askoz altuagoa (1.527).

Debagoineneko inbertsioa oso altua da Eibar-Gasteiz autobideak duelako kopuruaren zati handiena: 133 milioitik gora. Gaineko kopuruak honela banatu dira: gizarte politikarako, 12 milioi euro (horren barne, pensioek eta prestazioek, 3,5 milioi;

Gipuzkoako osorako, 687,2 milioi euroko aurrekontua aurkeztu du Foru Aldundiak

txertaketa sozialak, 1,3; adin txikikoendako, 125.000 euro; gutxituendako, 1,4 milioi; eta nagusiendako, 5,9 milioi); bide azpiegiturarekiko, 4,6; garapen iraunkorrerako, 30.000 euro; bestelako inbertsio multzoari dagokio 3,2 milioi euro; eta 2006ko Inbertsioen Aparteko Planerako, 2,4 milioi.

GIPUZKOAKO OSOAN, 687,2 MILIOI
Guztira, Aldundiak 687,2 milioi euro inbertitu eta gastatuko ditu zuzenean Gipuzkoako 88 udalerrietan. Atal nagusietan, honela banatuko da dirua: gizarte politikak, 156,9 milioi; bide azpiegiturak, 143,6; Bidegi, 221,1; garapen iraunkorra, 37,3; eta azkenik, Inbertsioen Aparteko Plana, 65,6 milioi euro.

Urkulun, landare berriak laster

Urkuluko urtegi inguruko landareak kentzen eta berriak ipintzen ari dira langileak joan den asteaz geroztik eta martxo ingurura arte. Foru Aldundiako Nekazaritza saila da lanen arduraduna, Berdabio enpresaren bidez, eta Naturgintza Fundazioaren Urkulu biziberritzeko proiektuaren barnean daude lanok. Zuhaitzak eta sasiak kentzen ari dira, espezie exotikoak direlako, eta hemengo landareak ipiniko dituzte -elorria, lizarra, hultz, urkia...-, animaliendako ingurune egokia sortzeko eta paisaia-baloreari eusteko, besteak beste. /ARGAZKIA: MIRARI ALTUBE



Batasunak BECeko ekitaldia egingo duela berretsi du

Autobusak antolatu dituzte ibarreko zenbait herritik

GOIENKARIA

Batasunak hilaren 21erako deitutako ekitaldiak Auzitegi Nazionalaren debekua jaso badu ere, aurrera egingo dutela jakinarazi dute antolatzaileek. Debagoienetik Barakaldora joateko autobusak antolatu dituzte ibarreko kideek.

Debekuen gainetik BECen egiteko iragarrita dagoen ekitaldi politikoa egingo dutela berretsi dute Batasunakoek. Fernando Grande-Marlaska Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaileak hasitako eginbideen harira Batasunakoek hau esan dute: "Eskubide zibil eta politikoen jabe omen gara. Eskubide horren ariketa bat besterik ez dugu egin nahi hilaren 21ean Barakaldon".

Bertan, *Euskal Herria ezkerretik eraikiz proposamen politiko berritua jendaurrean plaza ratzea* da asmoa.

Aurrez, goizean, herrietako eta hirietako ordezkariek bilduko dira eta nazio biltzarra egingo dute; honela, Bide Eginez eztabaida politikoa amaituz.

AUTOBUSAK IBARRETIK

Ekitaldia 17:00etan dira egitekoak; eta bere proiektu politikoen bat egiten duen herritar orori zabaldua dago. Debagoieneko herri nagusienetatik 15:00ak aldean abiaturiko dira autobusak Barakaldora. Joan nahi dutenek ohi lekuetan jaso dezakete horren berri gehiago.

Proposamen politiko berritua aurkeztu nahi du Batasunak jendaurrean BECen



Elgeta bidea z/g.
130 posta-kutxa
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 91 37
Faxa: 943 76 91 38

e-posta:
ttt@grupottt.com
web orria:
www.grupottt.com

TEKNOLOGIAK:

- Bonifikatura
- Zementazioa, karbonitruzazioa, tenplaketa.
- Goi-hutzeko tratamendua
- Tenifer nitruraziora
- Nitreg nitruraziora
- Indukzio bidezko tratamendua
- Kromo gogorra, kromo matea.
- Artezketa eta laapeaketa
- Plasma bidezko proiekzioa
- HVOF bidezko proiekzioa
- HFPD bidezko proiekzioa
- Proiekzio oxiazetilenikoa eta elektrikoa

PRODUKTUAK:

- Zurtoin motelgailua
- Presiozko galdaketarako higadura erreminta




Garibai etorbidea 6. Tel: 943 79 97 86

laster eraikitzen

Errioxako Ribas de Tereson 11 etxe atxikiak

Toloño mendiaren magalean



Labastidatik 4 Km.
Gasteiztik 30 min.
Arrasatetik 60 min.
Donostiatik 90 min.

ikuspegi paregabeak

62
80

informazioa

679 25 19 33

ANTZUOLA

Errekako lanen lehenengo fasea otsail erdialdean hasiko dute

Mañarieta kalean jarri dituzte dagoeneko langileek erabiltzeko txabolak. Erreka desbideratzeko lanak hastear daude; Udalean esan digitenez, otsail erdialdean hasiko dituzte lanak Moyua eraikuntza enpresakoek.

Lehendabiziko fasean, Herriko Plazaren eta Kalebarrengoko atzeo aldeko lanak egingo dituzte. Uztalean edo abuztuan bukatuko dute fase hori. Bigarren fase baten, berriz, Herriko Plazan erreka bistaratuko dute. 2007ko martxoan amaituko dituzte guztiz lanak. /AINTZANE IRIZAR



O.E.

ARAMAIO

Aurrekontuak aztertuko dituzte datorren asteko osoko bilkuran

Eguaztenean, hilak 25, egingo dute batzarra, 18:00etan hasita. Alkateak aurreratu dugu bestelako artean aurrekontuak landuko dituztela; akaso ez aurrekontu osoa, baina bai aurrerapentxo bat. Halaber, jakinarazi digu Hirigintzarako izan ezik, gainerako batzorde guztiarako partidak zehaztuta dituztela. Hirigintzari dagokionez, sail horretan aurreikusi dituzte inbertsiorik handienak. Eta inbertsio horiek aztertzen dabilta, lehentasunak zehazteko. Izan ere, alkateak esan digu diru gutxi dueña Udalak 2006rako. /U.M.

ELGETA

Podologoaren kontsulta Herri Zentrora aldatuko dute otsailean

Hileko lehenengo baríkuak podologoak kontsulta izaten du Elgetan. Erretiratuen elkartea deitura etortzen da Eibarreko, eta erretiratuek ez ezik nahi duten herritarrek dute bertara etortzeko aukera. Orain arte Kultura Etxera etorri izan da podologoa, baina hemendik aurrera kontsulta Eguneko Zentroan izango dela jakinarazi dugu. Hurrengo saioa otsailaren 3an izango da, eta joateko asmoa dutenek Nati Arrietari telefonoz deitura eman beharko dute izena (943 76 80 77). /I.A.

BERGARA

Ur depositu berria egiten dihardute, Boluko bizilagunak hornitzeko

Bolu inguruko etxebizitzak hornitzeko helburuarekin, Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrerako Departamentuak ur depositua egiten dihardu Iraburu gainean. Aipatutako depositu berriak Bolu inguruko etxebizitzak hornituko ditu etorkizunean. Hala, 2.000 pertsona inguruk jasoko dute ura depositu berritik.

Urkuluko ura Antzuolara eramateko erabiltzen den kanalizazio bera erabiliko dute ura Boluraino heldu ahal izateko. Handik, esan bezala, Bolu inguruko etxeetara banatuko da. Hango bizilagunek ura bonbeatzeak dakarren gas-tua ordaindu izan dute. Ur depositua martxan jartzen denean, baina, ez dute zerbitzu hori ordaindu beharrrik izango. Aspaldiko eskakizuna zen ur depositu berria eraikitzea. /E.M.

ASTE SANTURAKO

Lanak urri aldera hasi dituzten, eta Aste Santu

ingururako amaitzea da asmoa.

Aurrekontua 600.000 euro inguru da. Udaleko Hirigintza Zerbitzuko iturri-en arabera, etorkizunean Zabalotegi alderia eta Arana inguruko baserrietara ere handik banatuko dute ura.

Gaur egun lau ur depositu nagusi dira herrian: Txarakoa, Albitxukoa, Osintxukoa eta Angiozarkoa, hain zuzen ere. Horietan guztietaan Urkuluko ura jasotzen dute. Era berean, Elosu auzoan bada beste depositu bat, baina han bertako iturburutik jasotzen dute ura. /E.M.

Zertzelada

2.000 pertsona inguruk jasoko dute ura depositu berritik. Urkuluko ura Antzuolara eramateko erabiltzen den kanalizazio bera erabiliko dute

ARRASATE

Natale Landa abokatuak zalantza juridikoak ditu 18/98 auziaren kalkuluan

18/98 sumarioan implikatuta dagoen Natale Landa abokatuak zalantza handiak ditu euren defentsa modu egokian egin ahal izango duten. Hala adierazi dio Arrasate Irratiari: "Hasi egin behar zelako hasi zen epaiketa; izan ere, berez, uste dut sumarioa ez dagoela epaiketa bat hasteko moduan, edo behintzat, pro-

zesatuen eskubideak defendatzeko prozesua gertu ez dago(...)." "Milaka eta milaka orriz osatutako sumarioa da, horrek ekartzen dituen zaitasun guziekin". Esaterako, kontatu digu 75/89 sumarioan 100.000 orri daudela eta abokatuek urtarriaren 30era arteko epea dutela guztiak irakurri eta defentsa prestatzeko. /U.M.



Natale Landa GOIENKARIAK Arrasaten duen egoitzan.

ARETXABAleta

Seigarren aldiz ospatuko dute bihar Kanuto deunaren jaia

Marihuanaren zaindari izendatu zuten orain dela sei urte Kanuto, eta geroztik urtero egin dute jaia Aretxabaletan. Bihar, zapatua, bolo txapelketarekin hasiko dute jaia, eta txikiteoaren ondoren herri bazkaria egingo dute. Orkestra-gizonak girotuko die bazkalostea, eta arratsaldean makulele eta capoeira era-kustaldiak izango dituzte. Ilunkaran kalejira egingo dute Kanutoren irudiaren eta omenaldia eskaini-ko diote gero. Gau partea, ostera, musikak girotuko du: Gaiteru's Banden konzertua eta DJ jaia. /M.A.

ESKORIATZA

Lehengo Museo Eskolan jarri dute Musika Eskolaren egoitza berria

Joan den maiatzean hasi ziren Museo Eskolaren lokalak zena egokitzeko lanak eta abendura arte iraun zuten. Hain zuzen ere, Gabonetako oporraldiak baliatu zitzuten lekualdaketa egiteko, eta urtarriaren 9tik aurrera ikasleek egoitza berrian jasotzen dituzte eskolak.

Egoitza berriak 11 ikasgela ditu, aurrekoak baino bat gehiago, eta Musikene eskolaren pareko intsonrizazioa jarri dute.

Lan guztiak bukatu barik daude, eta horiek egiterakoan inaugurazio ofiziala egingo dute. /I.B.

LEINTZ GATZAGA

Euskal Bizikletak Gatzagan egingo dituen etapen aurkezpena

Atzo ilunkeran aurkeztu behar zitzuten Euskal Bizikletak Gatzagan egingo dituen bi etapak. Dorletako Amako kideak, Eibarko antolatzaileak eta Udaleko ordezkarriak ziren elkartzeoak. Izan ere, lerro hauek lehenago idatzi behar izan genituen.

SAGARDOTEGIRA IRTEERA
Sagardotegira irteera antolatu dute urtarriaren 28rako. Gatzagar guztiak daude gonbidatuta irteera horretara, eta Labidean eman behar da izena, domeka baino lehen. /X.U.

Udalitz menditik kareharria ateratzeko proiektua aurkeztu zuten duela urtebetetan.

Arrasateko Udalean. Horijakin bezain pronto, proiektuarekin ados ez daudenek plataforma bat sortu zuten, Bai Udalatx.

OIHANA ELORTZA

Proiektua da kareharria ateratzea Udalatx menditik?

Bai. Momentu honetan ari dira ikerren eta proiektua errentagarria izango den edo ez.

Zertarako egin dute proiektu hori?

Kareharria ateratzeko. Beraiek esan dute kanpoko harrobiak agortzen ari direla eta horregatik erabaki dutela Udalatx barrua ustiatzea.

Gainera, dio proiektu horrek inguru menarekiko inpaktu, eragin txikia duela, baina zinismoz jokatzea da hori. Beharra egoteak ez du esan nahi hau bezalako astakeria egin daitekeenik. Bestalde, guk ez dugu esan legala ez denik proiektu hori. Baina etikoa da? Egun bakarreko kontratuak egitea ere legala da, baina justua da, etikoa?

Badu arriskurik proiektuak?

Jaurlaritzako Ingurugiro sailak esan du arrisku handiak egoten direla horren moduko sistema karstikoek dituzten akutu feroetan. Gai horren inguruko ikerketa sakonak eta analisiak hamabostean behin egin behar lituzkete, baina ziur gaude ez dituztela egiten. Ez dute inoiz egin, gainera, Udalak ez du prestatutako jenderik lan horiek egiteko.

Baditu onurak?

Enpresarendako. Harria ateratzetik lortutakoa harrobiarendako izango da. Beraiek diote Arrasateren garapenaren alde lanean jarraituko dutela, baina garbi dago beraientako direla onurak.

Ze ondorio ekarrako ditu?

Gu geu ez gara geologoak, baina Iñaki Antiguedad EHUKO Hidrogeologiako katedraduna egon da hemen, eta berak idatzitako txostenak dio tokia ahula dela, era-sotzen erraza eta ur fluxuen norabidea ere aldatu daitekeela.

Udalatx sistema karstiko bat da eta lur azpiko ur korroneak ditu. Behin kaltetuz gero, ezin dira gehiago berreskuratu.

Oviedon, adibidez, antzerako proiektu bat egitea gura zuten, baina egin beharreko ikerketak egin ostean, bertan behera utzi zuten. Ez dakizkit arrazoak, hala ere. Tindaya ere hor dago, bestalde.

Noiz sortu zen Bai Udalatx plataforma eta nortzuk osatzen duzue?

Urkuluko gaiaren inguruko prentsurreko bat ematen ari ginela, Ezker Batuko kideak etorri ziren esatera proiektu bat zegoela Udalatxen meategi bat egiteko. Hantxe bertan egin genuen deia gai horren inguruan hitz egiteko eta horrelaxe sortu zen Bai Udalatx. Orain urtebetetan zen hori, 2005eko urtarrilean.

Egun, Bai Udalatx plataformaren barruan gaude alderdi politikoak –Batasuna, Ezker Batua, Aralar eta Zutik; sindikatuak –LAB, ESK eta Ahots Kooperatibistak. Horiez gain daudenak: Ekologistak Martxan, Besaide mendi elkartea, Arrasateko Gaztetxea eta beste batzuk.

Nolakoa zen jaso zenuten proiektua? Zer ikusten zen?

Proiektua Udalera heltzen da eta zinegotziek ezagutzen dute. Oviedoko meatzari enpresa batek egindako proiektua da eta



OIHANA ELORTZA

Javier Abalde

BAI UDALATX PLATAFORMAKO KIDEA

“Hasi dituzte Udalatx ustiatzeko lanak, baina ez dakigu zer, nola eta zenbat ari diren egiten”

UDALAITZ AZPIKO ZULOAK

“Proiektua aurkeztu zutenean esan zuten beste herrialde batzuetan erabili dituztela zuloak merkataritza-zentroak, aterpe nuklearrak edo biltegiak egiteko”

ONURAK ETA ARRISKUAK

“Udalaitz sistema karstikoa da, proiektu horrek arrisku handiak ditu eta ondorioak ere larriak izango dira; onurak, bestalde, enpresarendako izango dira”

ustiaketaren arlo teknikoak jasotzen ditu, erabat teknikoa da.

Proiektuak jasotzen zuen harrobiarenkin zer egin gura zuten. Ikusten zen nola aurretik ikerketa bat egin zuten eta aztertu zuten tunel bat egitea zabaleran sei metro, altueran sei metro eta luzeran 1.000 metro baino gehiago dituena. Tunel hori egonkorra zela ziurtatuz gero, alboetan galeriak egitea ere aztertu zuen proiektu aipatutako horrek. Hala ere, esan behar da proiektua Udallean aurkeztu aurretik.

hasi zituztela lanak. Orain, espediente zigortzaile bat zabaldu da proiektua aurkeztu aurretik lanak hasteagatik.

Ez delako legala?

Guk ez dugu esan legala ez denik. Udalak ordenantza batzuk ditu lizenzia erre-gimenak jasotzeko. Horietan hiru puntu hauetan daude jasota: lur azpiari ematen zaion edozein erabilera egiteko lur azpiko instalazioak, aldi baterako egiten diren lanak eta partikularrek publikoak diren lurretan egiten duten erabilera.

Hiru puntu horiek Udalatxen egiten ari direnaren adibide garbia dira. Alkateak horri eusten dio esateko kanpoko harri ustiapen jarraipena dela Udalatxen egin behar dutena.

Baina Udalatx babestu egin behar dela ere makina bat txostenetan dago jasota eta alkateak horietako edozein hartu beharko luke dugun inguru hori zaintzeko eta babesteko. Aldiz, guztiz kontrako egiten dute. Ez dakit zein interes duten, beraiek jakingo dute, baina uste dut harria behar badute, egongo direla Udalatx baino toki hobeak kareharria ateratzeko.

Zein da Arrasateko Udaleko alderdi politikoen jarrera?

Udalaren ideia da proiektuarekin aurrera jarraitzea, proiektua ezartzea, eztabaidea publikorik ez izatea eta noski, herrian erreferendumik ez egitea.

Alderdi politikoei dagokienez, Ezker Batua eta Aralar alderdiak Bai Udalatx plataforman daude eta beste guztiek proiektua onartzen dute, neurri batean edo bes-teen. Hala ere, alderdi sozialistak eta popularrak onartu egin dute gaiari buruz hitz egiteko plataformak egindako gongibadapena. Alkateari, EAJRI eta EAri ere egin diegu, baina ez dute erantzun oraindik. Alkateak, gainera, ez zuen gura izan gai honi buruz berba egitea 2005eko abenduaren 26an egindako osoko bilkuran. Eurek gura dutena da gure ahotsa ez entzutea eta bitartean lanak egiten jarraitzea eta proiektua aurreratzea.

Zuek egingo duzue herri erreferendumak?

Ezker Batuak eskatu zuen lehen Udalaren, baina ez zioten onartu.

Guk ere badugu asmoa egiteko, herritarrak proiektu horren alde edo kontra dauden ikusteko. Alkateak orain arte izan duen jarrera ikusita, ez dut uste erreferenduma egitea onartuko duenik; beraz, erreferendum alegala izango da.

Lanak hasita badaude, zenbateraino egin edo aurreratu dituzte?

Ez dakigu. Esan zuten urte bakotzean 400 metro lineal, zuzen, egingo zituztela, baina ez dakigu lanak zein puntu tan dauden ezta arazorik izan duten edo zeintzuk diren arazo horiek. Harrobioko gerenteari ere eskatu diogu lanak bisitatzeko aukera ematea, baina ezetz erantzun digu.

Larriena da Udalak ere ez duela jakin go lanek zein martxa duten. Ziur gaude Udalak ez diola galduen enpresari zertan ari den. Enpresarenkonfiantza izango du eta lanak egiten utziko dio.

Zertarako erabiliko dituzte gero geldituko diren hutsuneak, zuloak?

Oraindik ez dakite. Proiektuaren aurkezpenean esan zuten antzerako egitasmoak egin dituztela beste herrialde batzuetan eta adibide batzuk eman zituzten zuloak zertarako erabil daitezkeen ikusteko. Aipatu zituzten adibide batzuk dira merkataritza zentroak, biltegiak edo aterpe nuklearrak egiteko.

Zenbat denbora behar dute aurkeztutako proiektua egiteko?

Proiektua errentagarria izango den edo ez ari dira aztertzen orain, baina errentagarria dela ikusten badute, 2010ean hasiko ei dira ustiatzen.

Zer egiteko asmoa duzue aurrezean?

Batetik, kale bilkura egingo dugu gaur, egubakoitza, 19:30ean, Arrasateko plazan. Plataformako guztiok egongo gara eta herriko guztiak gonbidatzen ditugu.

Bestetik, herritarrak informatzen jarraituko dugu eta instituzioetara ere jo gura dugu. Udala ezin izan dugu erabili gure mozioa defendatzeko baina elkarrizketa bat eskatu behar diogu Jaurlaritzako Ingurumen sailburuari, Esther Larrañaga arrasatearrari. Arartekoarekin biltzeko asmoa ere badugu.

Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezan tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa eta helbidea agertu beharko dira bidaltzen den gutunean. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAK bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefona: 943 25 05 01
Faxa: 943 76 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com



Bizi osorako espetxe zigorra

Unai Paroti, 1990. urtean atxilotua izan zenetik, ez zaizkio preso dagoen pertsona bati dagokion eskubide minimoak egun bakar batez ere errespetatu. Gainera, Euskal Preso Politikoa izateagatik, kolektibo honentzat bereziki sortutako neurri errepresiboa suntsitzaileak jasan behar izan ditu.

Honela, atxilotuaz bat ezarri zitzaien inkomunikazioan jasandako tortura basatiak salatu zituen lehendabizi. Sakanaketa politikak, bere herritik ehunka, eta beti ere mila kilometro ingurura dauden espetxeetako politika deuseztatzaleak nozitzena kondenatu du. Ibilbide luze honetan tratu txar etengabeak jasan ditu funtzionario eta Guardia Zibilen eskuetan. Azkeneko jipoia Entzutegi Nazionalean bertan (espainiarren erabateko justiziaren eredu) jaso zuen, azaroan deklaratza era manutenean. Preso daramatzan 15 urte eta erdi hauetan, 98ko su eteneko garaia salbu, pertsona psikologikoki txikitza helburu duen isolamendu egoeran daukate preso.

Guzti honi sistematikoki ukatzen zaizkion bere hizkuntzan hitz egiteko eskubidea, ikasketak burutu ahal izatea, osasun beharren betetzea edo eta komunikazioan jasaten dituen murriztapen eta kontrolak gehitu behar zaizkio.

Ez zaio bere izaera politikoa onartzen, nahiz eta Euskal Herriko gatazka politikoaren eraginez dagoen preso. Nahiz eta kolektibo guztiari ezartzen zaien neurri eta tratu bereziekin automatikoki izaera ezberdina onartzen zaien, paradoxikoki bere izaera politikoa aintzat hartuz. Honela Euskal Herrian eta elkarlanean kolektibo gisa bizitza ukatzen zaien, bai Unairi eta baita gainontzeko Euskal Preso Politiko guztiei ere.

Orain arte zerrendatu diren eskubide urraketa guzti hauek, larriak izana-

gatik, ez dira inondik inora berriak. Gure senide eta lagunek beren egune-rokotasunean pairatzen duten amai-gabeko zigorra da. Baina Unairekin, gainera, badirudi fijazio berezia dutela. Spainiar estatuak bere mendeku gose asegaitzaren jo puntuaren kokatu du Unai eta berriki bizitza osorako espeltxeratza helburu duen mugimendua abiarazi diu.

Apirilean, leporatzen zaizkion delitu-en kondenak bi epetan banatu nahi izan zizkioten. Horretarako, 82 eta 84. urtean artean ETA erakunde armatutik kampo zegoela argudiatzen zen. Honek 82.era arteko delituak multzo batean eta 84. urtetik aurrerakoak beste multzo batean ezberdintzea ahalbideratzen zuen. Formula sinesgaitz honen bitar-tez, lehengo epearri dagokion kondena betetzean, bigarren epearren kondena aplikatu nahi izan diote, Spainiar gehienezko kondena den 30 urteko espetxe zigorra bi aldiz betearaziz.

Maniobra honek, ordea, ez zuen inongo sostengu juridikorik eta Spainiar lege-diren oinarririk sendoenak dantzan jartzen zituen oinarrian zuen helburu mendekatzailea ageri-agerian utziz. Ondorioz, bide hau oraingoz albo bateara utzi dutela dirudi.

Hala ere, ez dute beraien asmoetan etsi eta azaroan beste bide bati ekin zio-ten. Lehenagoko delituak bitan zati-terik ez zegoenez, delitu berri bat sortu beharra zegoen. Horretarako, Ainhoa Mugika eta Txapote-ri ustez atzemantako eskutitz bat erabili dute. Gutun honen bitar-tez, Unairi erakunde armatua kartzelatik zuzentzen due-la leporatu nahi zai. Delitu honegatik jasoko lukeen kondena gaur egun betetzen ari dena bukatzean bete beharko luke.

Unaik kanporatze data 2012. urtean du eazarria. Maniobra honekin beste 30 urtez kondena luzatu, hau da, bizi osorako kartzela zigorra eazarri nahi diote.

Hainbat hilabete daramatzagu eus-kal gatazkaren inguru esperantzarako garai berriak datozena entzuten. Baina Euskal Preso Politikoen egoera begi-ratuz, hauek deuseztatzeko bide berriak, mendekua ezartzeko neurri berriak, eta azken finean sufrimendua areagotuko duten garai berriak ikus daitezke soili-k. Ankerkeria hutsa da barea epai-netan erabili eta aldi berean konponbi-derako prozesuan ezinbestekoak diren preso politikoen eskubideak bortxatzen dituen politika errepresibori bidea zabaltzea.

Hutsalak izango ez diren pausoak emango baditugu, ezinbestekoak da euskal preso politikoen giza eskubide zein eskubide politikoak errespetatzea. Bai Unairenak eta baita beste preso politiko bakoitzarenak ere.

ASKATASUNA
Arrasate

Gazte gara gazte ta ez gaude konforme

A txabaltako 16 urteko gazte koadrila abat gara. Gabonetako opor hauetan ezer berezirik egiteko ez genuenez Dagda Irish Pub tabernara joan ginene arratsaldea pasatzeko asmotan. Mahai baten inguruan eserii ginen eta bakoitzak kontsumizio bana eskatu genuen.

Handik ordu batera jabea hurbildu zitzagun eta mahaiko ontziak eta libre zeuden bi aulkki jaso zituen. Guk aulkia-k behar genituela esan genionean, ea bes-te zerbaite hartuko genuen galdetu zigun. Erantzuna ezezkoa izan zenez, bertain nahiko denbora pasa genuela (ordube-te besterik ez), eta alde egiteko esan zigun. Guk, harrituta, erreklamazio orria esku-tu genion, betiere modu onez, eta berak 18 urte beherakoek eskubide hori ez dutela erantzun zigun, berriz ere taberna uzteko esanez.

Honen guztiaren aurrean, zera esan nahi dugu:

-Orain arte, gure adina ez dela oztopoa izan tabernan sartzeko, ezta ordu txiki-kietan, jaietan alkoholdun edariak eska-tzeko ere.

-Gu bezala, beste asko bertan arrasaldea pasa zeudela, baina noski, haien helduak ziren. (Errazago da gazte bat bidaltea).

-Argi dagoena da pub honetako jabearen helburu bakarra negozioa egitea dela. Beraz, bertako bezeroak heldua eta diruduna behar du izan.

Honegatik guztiagatik:

Eskerrik asko Dagda Irish Pubko jabeari, gure koadrilari emandako tra-tu bereziagatik.

ATXABALTAKO GAZTE KOADRILA BAT
Aretxabaleta

Zuzenketa

Aurreko asteko GOIENKARIAn errakuntza bat izan genuen tokiko telebistei buruzko albiste batean. Tokiko telebisten elkartek Jaurlaritzatik diru kopuru bat jaso behar zuela esan genuen.

Eusko Jaurlaritzako 2006ko aurrekontuan partida berri bat sortu da, *Euskaraz telebista digitalak sustatu, garatu eta normalizatzeko dirulaguntzak* ize-nekoa. Partida honek 500.000 euroko aurrekontua du, eta pentsa genezake tokiko telebisten artean banatzeko izango dela.

Honek ez du esan nahi Tokiko elkar-tearentzat izango denik. Tokiko telebis-tak eta Tokiko izeneko elkartea nahastetik etorri zen okerra

GOIENKARIA

Hemeroteca

'Euskara erreko digute'

Eretzeaz edo ez erretzeaz indarrean jarri berri den lege berri honek, argi ez bagabiltza euskara erreko digu beste behin.

Hemen erretzea badago eta gisako-ak ez dira oso jatorrak. Jatorra benetan *Hemen erre liteke da*, edota *Hemen ezin liteke erre*, edo legearekiko zehatzago direnak, *Hemen erretzea debekatuta dago* edota *Hemen erretzea ez dago debe-katuta*.

(...).

Hemen erretzea dago edo *Hemen erre-teeza badago*. Ez bata eta ez bestea. Ofizialki argitaratu da esaldi desegokia. *Hemen erre litekeegokiagoa* da eta *Hemen ezin liteke erre* ere bai noski. Egon horren gehiegizko erabilera nabaria da eta askotan xelebrea euskaldun peto askorentzat.

(...).

Kasu hau ez da saldarena bezalako. Salda egon egoten da, baina erretza ez da egoten. Hizkuntza kakazten ari gara.

ANDONI SARRIEGI ESKISABEL
Beasaingo Udalaren Euskara
Zerbitzburua
www.erabili.com

'Deskarga pasa eta dena Bizkaia da'

Goizean entzun dut irratian, Euskadi Irratian. Asteburuan Astigarragako sagardotegietatik tourra egin omen dute, sagardotegiak-eta ezagutzeko. Talde bat-kin egon dira irratikoak. Aipagarri jo dute gipuzkoarrekin batera bazeudela pare bat bilbotar, baita Elorrio eta Bergarakoak ere. Ez nago seguru hori kazetariak edo sagardotegikoak esan duen, baina belarriko mina egin dit.

Nire lehengusu batek (Goierrikoa bera) adarra jotzeko-edo, zera esaten dit: "Deskargatik aurrera dena Bizkaia da". Eta batzuek horrela pentsatzen dute.

Hamar-hamabi urterekin ez nekien oso ondo nongoa nintzen. Mendebaldeko euskalkian (bizkaitarrez) berba egi-ten dugu, baina ez gara bizkaitarrak. Bizkaitarrentzat giputxiak eta giputxientzat bizkaitarrak ginen (edo gara?). Udale-kuetan, jaietan... ezagutzen genituen lagun guztieiz azaldu egin behar gipuzkoarrak izanik zergatik berba egiten dugun horrela.

Batzuk lotsatu egiten ziren hain eus-kara garbia zutenen aurrean gure eus-kalkian berba egiteaz. Nik gainditu nuen lotxa hori eta gustura egiten dut berba antzuolarrez Goierri edo Tolosaldeko-kin.

USOA AGIRRE
www.goiena.net/blogak/tuttifrutti

Gazte ikastaroak



TXALAPARTA

Ttakun taldearen eskutik

- Hastapen eta sakontze mailak
- Otsailaren 17tik maiatzaren 13ra
- Ostiral (20:00-22:00) eta larunbatetan (11:00-13:00)
- Gaztetxean

ALBOKA

Angel Agirianoren eskutik

- Hastapen eta sakontze mailak
- Otsailaren 18tik San Juanak arte
- Larunbat goizetan, hiru txanda: 10-11, 11-12, 12-13
- Arrasate Musikalen

ARGAZKIGINTZA DIGITALA

Antonio Murilloren eskutik

- Hastapen mailakoa (Photoshop)
- Otsailaren 28tik martxoaren 30era
- Astearte eta ostegunetan, 18:00-20:00
- Monterronen

SABEL DANTZA

Jaione Albenizen eskutik

- Hastapen eta sakontze mailak
- apirilaren 29tik ekainaren 10era
- Larunbat goizetan Hastapen maila: 10:00etatik 12:00etara Sakontze maila: 12:00etatik 14:00etara
- Musakolako kiroldegin

Matrikula: 20 € / ikasle eta langabeek 12 €

Izen emateak: Gazte Bulegoan (943 77 00 65) gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Gazteria saila ■



LIRAIN
ESTETIKA-ZENTRUA

Ahaztu zaitez depilazioaz

Ezagutu laserraren atsegina

Lirain, Bailaran laser plataforma duen zentro bakarra

YAG

Barizeak eta Kuperosis aurkako tratamenduak (medikuarekin)



Fotodepilazioa.IPL

Azkarra eta emaitza onak



ALEJANDRITA

Gaztaina koloreko ilearentzat apropoza

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE. HASIERAKO FROGA DOAN.

LASER
Izterrondoak + besapeak
150 €

ESKAINTZA
otsailaren
11 arte

Debagoineneko estetika-gunerik haundiena. Teknika eta tresneria aurreratuenak zure esku.

Bixente Ferrer, 1

20500 ARRASATE

Tel: 943 79 52 17

Aloña Mendik ezin hobeto hasi du bigarren itzulia, liderraren atzetik

Oñatiarrek puntu batera baino ez dute Real Union, liderra

XABIER URTZELAI

Preferentean, ibarreko taldeek joan den astean hasi zuten bigarren itzulia, eta Aloña Mendik ikusgarri jarraitzen du. Orion 6 gol eginda, Real Unioongoak gero eta larriago dabilta, oñatiarrak gainean daudela ikusita. Bigarren itzuli luzea geratzen da.

Txalotzekoa da Oruetaren mutilik egiten dabiltsan lana, zale oñatiarrek inoiz baino porrot gutxiago jasan dituzte-eta. Azkagainen behin bakarrik joan dira Oñatikoak buru makur, Hernaniren kontra 0-3 galdua. Eta azken lau jardunaldiak jarraian irabazita, aurreraino egin dute jauzi, 41 punturekin.

Domekan, laugarren postuan dagoen Pasaiako izango dute bisitari, 16:00etan. Seguru lagun morroa elkartuko direla harmailetan, taldeari bultzza egiteko asmoz.

ARETXABAleta ERE ONDO

Joan den astean denboraldiko norgehiagoko txukunetako egin-



GOIENKARIA

Azken lau jardunaldiak jarraian irabazi egin dituzte oñatiarrek.

da, UDAkoek ere ondo hasi dute bigarren itzulia. Seigarren daude, eta pare bat emaitza on izaten baditzute segituan egingo dute gorago. Lesakara joango dira bihar (16:30), 18. lekuaren dagoen Beti Gazteren kontra lehiatzera.

Azken bederatzik puntuatistik bakarra etorri da Mondraren zakura, eta Gordobil eta Azkar-gortaren mutilek atzera egin dute horregatik. Bide luzea geratzen da Ligaren. Lehenengo pausoa bihar, Zarautzen (15:45).

Kirolabur

PILOTA/ESKU BINAKAKO TXAPELKETA, DOMEKAN

Bergarako pilotalekuaren lehiatuko dira domekan 18:15ean, Titin III.a eta Pascual eta Asier Olaizola eta Otxandorena. Final zortzirenetako norgehiagoka izango da. Hala, zaleek joan den astean ikusitako norgehiagoka motela ahaztu eta ikuskizun hobeaz goztzeko aukera izango dute. Orduan, Aimar eta Zearra gailendu ziren (22-9), Goñi III.aren lesioak bidea erraztuta.

EUSKAL BIZIKLETA/BI ETAPA EKAINean GATZAGAN

Debagoiendarrek gertutik jarraitu ahal izango dute Euskal Bizikleta. Ibarreko hainbat herriatik igoaroko da lasterketa, baina Gatzaga izango da protagonista, bertan amaituko da-eta ekainaren 2ko etapa, eta baita hurrengo egunekoan hasi ere. Atzo egin behar zuten aurkezpena, Gatzagan.



Urte barruan kirola egiteko gertu

Mankomunitateko Kirol Sailak hainbat eskaintza prestatu ditu 2006an kirola egiteko

Urte berrian kirola egiteko proposamena ahalegin hutsa bakarrik ez izateko, proposamena betetzeko hainbat eskaintza prestatu ditu Mankomunitateko Kirol Sailak. Denean eskaintzak daude kirola egin gura duten guztiendako.

Kirol txapelketen zirkuitua, kirol txartel bateratua, ikastaroak, kirol euskaraz eta kirol politikari buruzko topaketa adibide batzuk baino ez dira 2006ko kirol egutegirako. Osasuna zaindu egin behar delako, egin kirola



Osasuna zaindu egin behar delako

Kirola egiten laguntzeko prest

Hainbat aukera herritar guztiendako

Eskualdeko edozein kirol zerbitzutan ematen dute aukera guztiei buruzko informazioa.

KIROL ZERBITZUEN BERRIAK JASOTZEKO:

Antzuola	943 76 62 46
Aretxabaleta	943 71 26 28
Arrasate	943 77 16 77
Bergara	943 77 91 67
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75



DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
kirol zerbitzua

Aurrezki Gorakorra

EUSKADIKO KUTXA



Bide berria zure aurrezkientzat
gora eta gora egin dezaten

% 2,92
UTB

5 URTERAKO GORDAILUA
3.000 EUROTIK GORA
ERABILGARRIA


Bezero bakotzeko gehienez 30.000 euro – Lehen hiru urteetan dirua aterazten bada, interesak %1 murriztuko da, ez ordea gainerako urteetan – Eskudirutan edo beste entitate batzuen txekeen bidez egindako inbertsioetan kopuruko diru-sarreretarako baino ez du balio • Interesak gordailua muga egunera-tutakoan likidatuko dira. urtero kapitalizatu gabe Kapital higigarrien errendimendutzat hartuko dira interesak eta %15eko atxikipena izango dute: EAEn interes gordinen %50aren gainean aplikatuko da %15eko atxikipen hori eta Nafarroan interes gordinen %60aren gainean eskaintzak 36 milioi eurora iritsi arte edo 2006ko otsailaren 10era arte iraungo du – Euskadiko Kutxak konpromisoa hartzen du, eragiketa formalizatutakoan, bezeroari 15 eguneko epea emateko, eragiketa bertan behera utzi nahi badu – Eskaintza hau EAErako eta Nafarroarako da

% 4,00 + %1,00 mugaegunera arte eusten zaien gordailuei aplikatuko zaie.

Zurekin elkarlanean


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Debagoiena aldatu egin da, gu ere bai



Otsailaren 3an, Goienkaria berritua.

Informazio hobea • Diseinu berria • Orri gehiago • Kolore gehiago

Goienkaria

Goienka2a

Egubakoitza / 2006ko urtarrilaren 20a

Kultura
eta
aisialdia



Urtarrilaren
20tik 27ra

Misterioaren atearen bestaldean

DEBAGOIENEKO X TXOSTENEN
ARRASTOAREN ATZETIK

Esituak leihoa, enkantatu-tako baserriak, gauza harri-garriak egiteko gai diren ezinduak... Debagoieneko bizimoduaren eta mentalitatearen kutsua dute Debagoieneko X Txostenek ere. Txutxu-mutxuak edo asmakizunak batzuen iritziz, egia gardena beste batzuen iritziz, Debagoieneko enigmek luze iraun dute eta gaur egun ere askok entzuten dituzte gustura. Debagoieneko kasu batzuk batu ditugu, eta seguru gehiago ere kontatuz izan dela urtetik urtera.

Horiekin batera, Euskal Herriko beste gertakizun misterio-tsuetako aztarnak ere jarraitu ditugu, Euskal Herria oparoa da eta horrelako kasuetan. /14

LEIRE KORTABARRIA

MISTERIOA/ FENOMENO PARANORMALAK GUREAN

Gurean ere badaude X Txostenak

AZALPEN LOGIKORIK GABEKO GERTAKIZUNAK IZAN DIRA DEBAGOIENEAN ERE. EZAGUNENETAKO BATZUK JASO DITUGU

LEIRE KORTABARRIA

Ez dira asko, baina egon badago ere, Debagoieneko historian, X Espedienterik: gertakizun misteriosuak, bere egunean harridura eta ikusmena piztu zutenak eta gaur egunera iritsi zaizkigunak. Aste honetan, GOIENKARIA misterio horien arrastoen atzetik joan da.

Debagoienean ere gertatu izan da azaldu ezineko fenomenorik, izua eta jakin-mina aldi berean sortzen dituzten kasu horiek. Herritarren artean komentatu izan dira, eta batzuk hiri-leienda tankera ere hartu dute: norbaitek ezagutzen duen norbaiten eza-gun baten lagunari gertatutako gauza bitxi horiek, guziok entzun eta gogoan geratzen zaizkigun istorioak. Bere egunean, batzuek sinistu izan dituzte eta beste batzuek ez, baina inork ez die azalpen arrazionalik eman. Misterioz inguratuta geratu dira.

Ezaugarri horiek betetzen ditu Antzuolako Madariaga baserriko kasuak. Horixe da, gainera, Debagoieneko fenomeno paranormal kasu deigarriena eta ezagunena. Madariaga baseria San Blas auzoan dago, baina beste baseria guztietatik isolatuta. Gaur egun, abandonatuta eta erdia jau-sita dago, eta atmosfera bitxia du, bakardadeaz eta tristuraz hitz egiten duena. Larrañaga familiaren historiak hori berresten du: inguruoko gogoratzen dute elkarbizitza zaila zutela bestekin, eta azkeneko arreba bakar-bakarrik hil zela etxe harten.

Baserriak badu, edo bazuen, leho bat, eta, bizi zirenean, Larrañaga familiakoek zioten 1907an 20 urterekin hildako Joxe anaiaaren irudia agertzen zela kristalean. Familia ezagutu zuten baserritarek gogoratzen dute oraindik lehoia ikustera joaten zen jende andana. Halako baten, kristala



Antzuolan dago Madariaga baseria. Leihoko kristalean hildako etxeko seme baten irudia agertzen ei zen.

harrikadaz apurtu zuten, eta horixe bukatu zen misterioa... itxuraz, behintzat.

BASERRI GIROKOAK

Debagoieneko baserri giroak eman ditu kontakizun gehiago. Hala, Alfredo Feliu Corcuera *Zin-zarri* idazleak *Euskadi Insólita* liburuan dokumentatu zuen honako kasua: Antzuolan baze-goen gizon itsu bat, Esteban Aranes, baserriko lan gogorrak egi-ten zituena. Egileak hauxe zioen: "Estebanek ez du ikusten. Este-banek ez ditu gauzak ikusiko balu bezala egiten... Kontua da Este-banek, barrutik, bere barrenean, itsutasuna mendean hartu due-la". Itsu bat ortuko lanak eta abereak gobernatzeko gai izatea bitxia da, gutxinez...

Beste istorio batzuk beldur garriagoak dira, eta hiri-legenda kategorian sartzen dira. Hala, Debagoieneko baserri batez esaten da, gertakizun tragicoz batzuen ondoren (heriotzak, ezbeharrik..., izpirtiak zebiltzala han, eta madarikazioa zuela. Eta orain urte batzuk asko entzun zen hilerrian ouija, hildakoekin komunikatzeko taula, erabili zuten debagoiendar gaztetxo batzuena: gero, etxera joan eta euretako bati artaziak airera jaurti zizkion mahaitik esku ikusezin batek... Egia ala txutxu-mutxua, norberak erabaki beharko du.

INGURUKO GERTAKARIAK

Debagoien inguruaren gertatu izan dira fenomeno paranormal gehiago ibarrean bertan baino. Horie-

tako batzuek umore ukitua ere badute.

Audikanan, Araban, gertatu zen horietako bat. Oñati, Aretxabaleta eta Leintz Gatzagarekin muga egiten du herri horrek, baina ez da herri euskalduna. Hala ere, 80ko hamarkadan asko komentatu zen honako kasua, eta Egin egunkarian ere agertu zen: bikote batek ikusi ei zuen argi bat zerutik jaisten, eta emakumeari Etorri esan ei zion ahots batek... euskaraz. Emakumeak, beldur-tuta, *estralurtar euskalduna* uxatzea lortu zuen, eta hor bukatu zen kontua. Debagoienean bertan ez dute OHErik (objektu hegalarri ezezagunak) ikusi, jakin denik behintzat, baina hemendik oso gertu, Elorriion, ikusi zituzten zenbait 1986 urte inguruaren.

Kanpoan, gehiago

OHE fenomenoak errespetatu egin du Debagoiena, baina Euskal Herriko beste lekuetan halako gertakizun asko eta asko dokumentatu izan dira. Hain zuzen, Iker Jiménez kazetari gasteiztarren arabera, 40ko hamarkada bukaeratik 2000. urte ingurura, EAE zen Estatuan halako fenomeno gehien izan zituen erkidegoa (24). Estatuko 30 OHE fenomeno garrantzitsuenen artean, Euskal Herriko bi kasu daude: OHE bolada Amurrian eta Laudion –1974ko azaroan, herri horietako hainbat bizilagunek "aparatu borobil bat" zeruan bat-bateko mugimenduak egiten ikusi zuten; eta Bardeetako poligonoko gertakizuna –1975eko urtarrilaren 2an eta 5ean, hainbat militarrek poligonora bertara jaitsi zen objektu argitsu bat ikusi zuten, euren ondoan bertan. Izua piztu zuen horrek, baina agintari militarrek ezer esatea debekatu zuten.

Ez dira horiek Objektu Hegalarri Ezezagunak Euskal Herrian ikusi dituztenen kasu bakarrak: 1947ko Azpeitiko kasu batekin hasi eta gaur egunera, Gaintzurizketan, Barakaldon, Hernanin, Etxabarrin, Dulantzin, Gorlizen, Gasteizen, Bilbon... OHEak edo gizaki ez ziruditen presenziak ikusi dituztela zin egiten duten lekuak agertu dira. Toki askotan, hortaz; Debagoienean ez, baina.

Gai bereizia kazetaritzan

Fenomeno paranormalek beste fenomeno bat sortu dute, telebistako fenomeno bat, hain zuzen ere: *Cuarto Milenio* saioaren arrakasta. Euskal kazetari batek, Iker Jimenez gasteiztarrek, zuzendutako eta aurkeztutako saioa da. Cuatro katean ematen dute, eta kate horretako saio arrakastatsuena da: joan den domekan, hilak 15, %8,7ko ikusle kuota lortu zuen, 1,3 milioi bat ikusle.

Fenomeno paranormalena gai bereizia da kazetaritzan: informazio orokorreko komunikabideek ez dute lantzen, baina medio espezializatuak daude, eta jarraitzaile asko dituzte. Iker Jimenez da, gaur egun, gai horiek lantzen dituen kazetari ezagunena Estatuan, Juan Jose Benitez nafarra eta Fernando Jimenez del Oso zena behin izan ziren moduan.

Otxateko madarikazioa

Euskal Herriko X Txosten garrantzitsuenetako eta ezagunenetako bat Otxateren ingurukoa da. Arabako gune hori jenderik gabe dago gaur egun, baina denetarik gertatu izan da han, 1134. urtean sortu zenetik: bizilagunak hil zituen hiru izurrite (inguruko beste herriak kaltetu gabe), arrastorik utzi gabe desagertu den jendea, heriotza beldurgarri eta enigmatikoak...

Kondaira beltzak gaur egunera arte jarraitu du, eta tankera desberdinarekin; izan ere, 1981. urtean, Prudencio Mugurutzak *Trebiñoko OHEa* bezala ezagutu den argazki bat egin zuen: zerutik zetorren bola handi bat, argi urdinez inguratuta. Ikerlari asko erakarri ditu leku misteriosu honek, eta esaten da beste dimentsio baterako atea dela.



GOIENKARIA
Trebiñoko OHEa-ren argazkia.

MUSIKA/ KONTZERTU SORTA OPAROA ASTEBURUAN

Rockaren barruan, hainbat estilo

BARON ROJOREN HEAVY-ROCKETIK, CHILDREN OF BODOM-EN METALERAINO, STONERRA ETA FUNKYA AHAZTU GABE

LEIRE KORTABARRIA

Kontzertu sorta ederra antolatu dute Debagoieneko hainbat aretok asteburako. Rocka da auke-ratutako estiloa baina horren barne, askotariko estiloak daude aukeran: Children of Bodom, Baron Rojo, Zein? eta Desoreka, eta Obligaciones eta DIRTIES.

Asteburuko aurrenoko kontzertua gaur, egubakoitza, izango da. Hain zuen, Arrasateko 3.60 aretoan Baron Rojo rock talde espainiarra joko du 23:00etan. Sarre-ra kopuru mugatua ipini dute salmentan, eta 15 euroko salneurria dute. Heavy-rock estiloko talde beteranoak *Perversions* du orain azkeneko diskoa. 1981. urte-tik dihardute jotzen, eta, gaur egun, Armando eta Carlos de Castro (gitarra eta ahotsa), Angel Arias (baxua eta ahotsa) eta Jose Martos (bateria) dira kideak.

CHILDREN OF BODOM

Trash eta heavy metal erritmoak gurago dituztenek Children of Bodom talde finlandiarren emanaldia gozatu ahal izango dute, etzi, domeka, Bergarako Jam aretoan, 19:00etan.

Heavy metal estiloa da euren muina, baina death estiloko ahotsak, heavy ukituak eta musika klasikoaren eta elektronikoaren eraginak erabiltzen dituzte. *Are you dead yet?* diskoa aurkeztuko dute; taldekoen esanetan, *Hate Crew Deathroll* diskoa baino gogorrako; aditu esanetan, soinu "indarts eta gordina" du diskok, eskola berriko ukituarekin, baina euren jatorria ahaztu gabe.

Aurretik, Ektomorf eta One Man Army taldeek girotuko dute gaua. Sarrera 22 euro da.

OBLIGACIONES ETA DIRTIES

Euskal Herriko lau taldek bihar, zapatua, joko dute. Arrasaten eta Oñatin izango dira kontzertuak.

OÑATIKO GAZTELEKUAN,

23:00etan, Obligaciones (Gasteiz) eta DIRTIES (Elorrio) taldeek stoner doinuez jantziko dute gaua. Gasteiztarrek *Iwo Jima Party* hirugarren lana aurkeztuko dute. Euren betiko estiloari eusten diote disko horretan, baina aurrerapausoa ere egin dute, aurreko lanarekin alderatuta soinuak asko irabazi duelako, aditu esanetan. Elorrioko DIRTIES taldeak Qotsari, stoner estiloko talde iku-rriari, omenaldia egingo dio.

ARRASATEN, KONTZERTU GEHIAGO

Arrasaten, gaur, egubakoitza, Jim TNT bakarlarriak eta Gorrión Musik taldeak joko dute Jai Zale tabernan, 23:00etan.

Azkenik, bihar, zapatua, Zein? eta Desoreka taldeek joko dute gaztetxeen, 22:30ean. Zein? taldeak popa eta rocka egiten du, bluesarekin aberastuta; Desorekakoek rock gogorra eta funkya dituzte gogokoen.



JAM ARETOA

Children of Bodom talde finlandiarak Bergaran joko du etzi, domeka.



Euskal Herriko Lanbide Kualifikazioen Sistemari lotutako Etengabeko Formakuntzako Ikastaroak LANEAN ARI DIREN LANGILEEI ZUZENDUTAKO IKASTAROAK (%100-a subentzionatuta)

IKASTAROA

FABRIKAZIO ELEKTROMEKANIKOA (2. maila)

	ORDUAK	HASIERA	BUKAERA	ORDUTEGIA
· Modulua: Fabrikazio mekanikoko makinen prestaketa eta programazioa (275 ordu) CNC fresatzeko makinaren programazioa	46	06-ots-14	06-mar-15	18:00 - 21:00
CNC fresatzeko makinaren prestaketa eta programazioa	46	06-mar-20	06-api-27	18:00 - 21:00
· Modulua : Txirbil-harroketako bidezko fabrikazioa (300 ordu) CNC fresatzeko makinako mekanizazioa	50	06-mai-03	06-mai-25	17:00 - 20:30
· Modulua : Fabrikazio mekanikoko sistema osagariak (110 ordu) PLCen programazioa	60	06-ots-06	06-mar-08	17:00 - 20:30
Roboten programazioa	20	06-mar-14	06-mar-22	17:00 - 20:30
· Modulua : Automatismo elektrikoak, pneumatikoak eta hidraulikoak (185 ordu) Automatismo programagarriak	40	06-mar-27	06-api-27	17:00 - 20:30

METAL-ERAIKUNTZAK (2. maila)

· Modulua : Giro naturaleko soldadura (310 ordu) Elektrodo estali bidezko beste posizio batzuetako soldadura	80	06-ots-13	06-mar-14	17:00 - 21:00
· Modulua : Giro babestuko soldadura (215 ordu) Posizio horizontaleko MIG / MAG soldadura	50	06-mar-20	06-api-04	17:00 - 21:00
Beste posizio batzuetako MIG / MAG soldadura	50	06-api-26	06-mai-12	17:00 - 21:00
Posizio horizontaleko TIG soldadura	50	06-mai-17	06-eka-01	17:00 - 21:00
Beste posizio batzuetako TIG soldadura	50	06-eka-07	06-eka-22	17:00 - 21:00

METAL-ERAIKUNTZAK (3. maila)

· Modulua : Metal-eraikuntzen irudikapena (240 ordu) CAD. Metal-eraikuntzen irudikapena (Solid Edge)	60	06-urt-31	06-mar-02	17:00 - 20:30
---	----	-----------	-----------	---------------

TRESNERIA ELEKTRONIKOAK (2. maila)

· Modulua : Telebista tresneria (170 ordu) Telebista-seinaleak banatzeko sistemak muntatzea eta mantentzea	80	06-ots-20	06-mar-28	16:45 - 20:45
Telebista-tresneria mantentzea	80	06-api-03	06-mai-22	16:45 - 20:45

KATALOGOTIK KANPOKO ETENGABEKO FORMAKUNTZAKO IKASTAROAK

Solid Works	60	06-mar-08	06-api-05	17:00 - 20:30
Autocad 2005	60	06-mai-03	06-api-31	17:00 - 20:30

INFORMAZIO GEHIAGO ETA INSKRIPZIOAK: IEFPS Aretxabaleta GLHBI , Etxebarri auzoa, z/g Tfno.: 943 79 79 00



EUROPAR BATASUNA
Europako Gizarte Funtasoa



Fundación Vasca para la Formación Profesional Continua

Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioa

Urtarrilak 20-27

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguzteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13

DEIAK

ARAMAIO

► Bainuetxetara joateko eskaera egin daiteke hil bukaera arte. Otsaila eta abuztuan joan gura duten pentsiodunek egin behar dute eskaera. Horretarako, joan udaletxeko bulegoetara.

ARETXABAleta

► Sendabelarren inguruko berbaldi praktikoa egingo du Zorion Intxaustik egunean, hilak 26, udaltek zaharrean, 19:00etan, Loramendik antolatuta.
 ► Kanuto Deunaren eguna ospatuko dute bihar, zapatua; bestea beste, bazkaria egingo dute, eta txartelak salgai daude Azkena, Ezkueta eta Urbaltzen (15 euro). Ospakizunak 12:00etan hasiko dira bolo txapelketarekin; gero, orkestrarekin dantzaldia, hipnotizatzailea, dantza erakustaldia, kalejira, kontzertua eta DJ jaia ere izango dituzte.

ARRASATE

► *Beldurra ipuineta* izeneko hitzaldia egingo du Juan Carlos Alonso psikologoak egunean, hilak 26, Monterrongo haur liburutegian, 18:30ean.

BERGARA

► *Paulo Elkoro* herrira itzultzen dela eta, ongi torri egingo diote etzi, domeka, San Martin plazan, 19:00etan. Segidan, manifestazioa izango da. Hilaren 28rako afaria deitu dute.

► **Bergara Aurrera plataformak** Arau Subsidiarioen gaineko irlitzia jakinaraziko du martitzenean, hilak 24, kultura etxearen, 19:00etan. Euren emendakinen berri ere emango dute.

DEBAGOIENA

zutenei dei egiten diente bihar, zapatua, elkarteko. Arbolapetan batuko dira, 19:00etan. Besteak beste, Amagoia Unanue, Juan Pedro Otadui, Eider Zumalde, Larraitz Uribesalgo, Ekaitz Uribe eta abarrekin ikasitakoak batuko dira. Helburua dute poteo erraldoia.

ONATI

► **Toti Martinez de Lezea** idazlearekin berriketen egiteko aukera egongo da eguztenean, hilak 25, Errekalde Herri Eskolan, 18:00etan.

LEHIAKETAK

ARRASATE

► **Aratusteetako kartel lehiaketa** deitu du udalak, eta edozeinendako dago zabalik. 50 x 70 cm-ko kartelak eskatzen dituzte, bertikalak, honako testuarekin: *2006 Inauteriak Arrasate*. 400 euroko saria dago jokoan. ► **Emakumearen nazioarteko eguneko** kartel lehiaketa deitu du Emakume Txokoak. Aurtengo leloa hau da: *Zainduak izateko eskubidea eta*

emakumeen intsumisioa. Lanak otsailaren 17a baino lehenago aurkeztu behar dira Udal Emakume Sailean.

► **Emakumeak Arrasateko Historian** delako film labur lehiaketa deitu du Emakume Txokoak. Ekaina arte dago lanak aurkezteko aukera. Argibideak, 943 79 41 39 telefonora deitura.

BERGARA

lehiaketa deitu du Bergarako udalak, Bergaran bizi edo erroldatuta dagoen edozeinendako. Kolore eta teknika libreen egindako kartelak izango dira, hori bai, 50 x 35 cm-ko kartoizko oinarrian, eta *Aratusteak 2006, Bergara* testuarekin. Irabazoleak 300 euroko saria jasoko du. Otsailaren 3a da mugaguna.

DEBAGOIENA

► **Bakarrizketa barregarriaren** lehiaketa deitu du Debagine elkarteak, eta otsailaren 28ra bitartean dago lanak bidaltzeko aukera, honako helbidera: Erratalde jauregia, z/g; 20570, Bergara; edo kulturajardun@topagunea.com. Lanak lelo sistema bidez aurkeztu behar dira.

IKASTAROAk

ANTZUOLA

► **Ardoa ezagutu** izeneko ikastaroa emango dute egunean, hilak 26, KZgunean, 10:00etatik 12:00etara.

ARAMAIO

► **Asteburu bat Euskal Herrian** delako Internet ikastaroa emango dute asteluhenean, hilak 23, KZgunean, 11:00etatik 13:00etara.

ARETXABAleta

► **Lanean dauden langileendako ikastaroak** antolatu ditu Aretxabaletako institutuak. Guztiz diruz lagundutako ikastaroak dira. Fabrikazio elektromekaniko, metal-eraikuntza, tresneria elektronikoa eta beste batzuk emango dituzte. Argibideak, institutuan (943 79 79 00).

HONAKO INTERNET IKASTAROAk

emango dituzte KZgunean: oinarrizko Internet (urtarrilaren 23tik otsailaren 3ra); eta irudi digitale tratamenduarena (lehen zatia: hilak 24 eta 25, 18:00-20:00; bigarrena: hilak 26 eta 27, 18:00-20:00).

► **Kontakt-inprobisazio dantzen** bigarren ikastaroa egiten ari dira, aurreko taldeko batzuekin eta parte-hartzale berriein ere. Aste Santua arte egingo dute ikastaroa.

► **Tril emakume taldeak** bi ikastaro antolatu ditu: batetik, eskulanena (martitzenero, 18:00-20:00, udaletxe zaharrean) eta bestetik, kakorratz-lan, patchwork, puntu eta brodatuena (eguztenero, 18:00-20:00, udaletxe zaharrean).

ARRASATE

► **Sanatana Dharma yoga eskolak** ikastaroak ematen ditu honako egunetan: asteluhenean eta eguztenetan, 09:30-11:00 (Maite da arduraduna, 635 71 06 16), eta martitzen eta eguenetan, 18:30-20:00 (Ana, 943 78 31 26). Erguina kaleko 2. zenbakian dago eskola.

► **Emakume Txokoak** hainbat ikastaro antolatu ditu urtarrilaren 16tik ekain erdialdera bitarterako: salsa dantza, tai-chi, yoga, irgelesa, asertitatea eta komunikazioa, lotura afektiboak eta emakumeak gorputzaren kontzientzia mugimenduaren bitarbez, eta masajeak. Argibideak, 943 79 41 39 zenbakian.



ASPEPELOTA Goi mailako pilota ikuskizuna

Eugi - Laskurain / Capellan - Elkoro

Titin III.a - Pascual / Olaizola I.a - Otxandorena

Baleztena - Auxkin / Berasaluze IX.a - Zubieta

- **EGUNA:** igandea, urtarrilaren 22a.
- **ORDUA:** 17:00etan.
- **LEKUA:** Bergarako Udal Pilotalekuaren.



Erreserbak baita interneten ere: www.aspepelota.com

ANTZERKIA

INTRIGA ETA UMOREA VATIKANOAREN GINEKO ANTZEZLAN BATEN

Erromako Eliza Katolikoaren magalean girotutako antzezlanak ikusteko aukera egongo da etzi, domeka, Arrasateko Amaia udal antzokian, 19:30ean. Hain zuzen, *Yo, Satan* antzezlan egingo dute Alfonso Larak, Juan Fernandez eta Pako Sagarzazuk, beste aktore batzuen artean. *Gaspar Olivares* fraide exorcista espainiarra eta Vatikanoko buru batzuk, Aita Santua bera barne, dira protagonistak. Fraidea Vatikanora joaten da, eta giro beldurgarria aurkitzen du han: Aita Santuaren azken aldiko jokaerak asaldatuta eta izututa ditu inguruokoak, eta Elizaren beraren bizi-iraupena ere kolokan dago... Antonio Almores *Nata Soy* nobelan oinarrituta, kontakizun umoretsua eta intrigaz betetako da.

Non: Arrasateko Amaia udal antzokian. **Noiz:** hilaren 22an, domeka, 19:30ean. **Ekoizlea:** K. Producciones.

Zinema

ARRASATE

■ AMAIA ANTZOKIA

En sus zapatos

Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30.
Astelena: 20:30.
Pailazokeriak: Txirri, Mirri eta Txiribiton
Zapatua: 17:00.
Arcadia
Eguna: 20:30.

ELGETA

■ ESPALOIA ANTZOKIA

Dinosaurio (españolez)

Domeka: 17:30.
Así en el cielo como en la tierra
Eguaztena: 21:30.

ONATI

► **iAy, Manolo!** izeneko antzezlan komikoa egingo dute La Tentacion eta Peineta antzerki taldeek gaur, egubakoitza, Santa Ana antzokian, 22:30ean.
► **Kixka** pailazo taldeak emanaldia egingo du bihar, zapatua, Elkar Hezi ikastetxe Santa Eskolastika egoitzan, 18:00etan. Herriko ume guztiak dago zuzenduta, eta sarrera doan da.

ANTZERKIA

ONATI

► **iAy, Manolo!** izeneko antzezlan komikoa egingo dute La Tentacion eta Peineta antzerki taldeek gaur, egubakoitza, Santa Ana antzokian, 22:30ean.
► **Kixka** pailazo taldeak emanaldia egingo du bihar, zapatua, Elkar Hezi ikastetxe Santa Eskolastika egoitzan, 18:00etan. Herriko ume guztiak dago zuzenduta, eta sarrera doan da.

IKUSKIZUNAK

ELGETA

► **Otehitzari biraka** delako poesia, dantza eta musika ikuskizuna egingo dute Kukai eta Ttattaka taldeek gaur, egubakoitza, Espaloia antzokian, 22:30ean.

ELORRIO

► **Ikus-06 video-jockey mostra** egingo dute bihar, zapatua. 19:00etan, mahai inguru egingo dute Ateneoan; 22:30ean, ikuskizuna bera, areto nagusian; 00:00etan, Capsula (VJ Freestyle eta DJ) emanaldia.

OSPAKIZUNAK

BERGARA

► **San Bixente** jaia ospatuko dute Parteittin, Añezor auzoan, etzi, domeka.

KRITIKA

MANUALE D'AMORE

PUNTUAZIOA: ●●

ZUZENDARIA: Giovanni Veronesi
AKTOREAK: Margherita Buy, Sergio Rubini, Carlo Verdone

Talian egin den zinema ikusteko aukera askorik ez badugu ere—hangongo oso film gutxi estreinatzenten dira—, momentu horretan gure zinemetan Giovanni Veronesiren *Manuale D'amore* komedia daukagu. Filmaren iragarkietan jartzenten duenez, Italiano David de Donatello sarietarako hamabi izendapen ditu, eta komedia apal honek hain-

beste izendapen baditu, pentsa dezakegu joan den urtean Italian ez direla film onengiak egin. *Manuale D'amore* ez dut esango gaizki dagoenik, baina ez da film ona. Ez badiozu gehiegi eska-tzen, denbora pasatzeko balio duen entretenimendua da, baina ez gehiago.

60ko hamarkadan, Italiano komedia asko iraupen gutxiko istorio desberdinat banatzenten ziren; ohitura hori asko galdu den arren, noizbehinka halako proposamenak sortzen dira. *Manuale D'amore*-k, lau istorioen bitartez, bikoteen harreman sentimental egoera desberdinak ukitzen ditu: bikote gazte baten maitemintze prozesua, mutilak ez du etsiko neska berarekin maitemintzea lortu arte; bigarren istorioak bikote baten krisialdia erakusten du; hirugarrinean emazte bat senarraren desleialtasunaz jabetzen da eta hortik



aurrera hartzen dituen erabaki leku-ko izango gara; eta azkeneko istorioa emazteak utzi duen mediku baten krisialdia ikusiko dugu. Istorio bakoitzak izendapen propioa du, eta batetik bes-terra pasatzeko, aurreko istorioaren per-sonaiaren batetik hurrengo istorioaren

pertsonaiarekin topo egiten du errele-bua emateko.

Istorio guztiek amodiaari buruz berba egiten dute, eta erabilitako tonu arina denetan agertzen da. Batzuetan dramatikoagoak diren ukitu batzuk badira, baina orokorrean, denek gehie-gi landu gabeko komediako tonua dute. Filma ez da originalegia, askotan jorra-tutako gaiak eta egoerak azaltzen dira, eta egoera horietan ez du gehiegi sakon-tzen. Dena den, kasu batzuetan aktoreen lanagatik, beste batzuetan zerbaiz landuago dauden eszenak daudelako —agian laugarren istorioa lortuen dago-en atala da—, ikusleak barre egitea eta ez aspertza lortzen da, baina azkenean lortutako emaitza nahiko mugatua da.

ANTONIO ZABALA

ZINEMA MERKEAGO

Txartel hau moztu eta sarrera merkeago izango duzu

Promozi baliagarria 2006/01/31, astelenerik igandera. Ez da bateragarria beste promozioekin.



ZINEMA MAILA GORENEAN





Anjel Arzelus eta Rosario Larrañaga berargarrek 25 urte egin dituzte ezkonduta urtarrilaren 17an. Familiakoekin batera ospatuko dituzte zilarrezko ezteiak. Zorionak, bioi, senideen partetik!

HILDAKOAK

Juan Carlos Garitano Munarga. Bergaran, 4an. 66 urte.
Maria Bastida Aranguren. Bergaran, urtarrilaren 11n. 73 urte.
Timoteo Iturbe Lizarralde. Bergaran, urtarrilaren 13an. 84 urte.
Alberto Barrena Urtzelai. Oñatin, urtarrilaren 15ean. 79 urte.
Anastasio Cornes Billar. Arrasaten, urtarrilaren 15ean. 80 urte.
Emilia Errasti Zubizarreta. Aramaion, urtarrilaren 15ean. 82 urte.
Felicitas Basauri Maturana. Bergaran, urtarrilaren 15ean. 85 urte.
Mercedes Kortabarria Elortza. Oñatin, 15ean. 73 urte.
Jesus Arenatza Baltza. Bergaran, urtarrilaren 16an. 81 urte.
Jazinta Atxutegi Askasibar. Bergaran, urtarrilaren 17an. 82 urte.

ESKER ONA

Aurelia Ibarrola Albeniz

Bergaran hil zen 2006ko urtarrilaren 11n, 99 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2006ko urtarrilaren 20an.

ESKER ONA

Ramon Valencia Esteban *Beltxa*


2006ko urtarrilaren 3an hil zen, 74 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2006ko urtarrilaren 20an.

Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez GOIENKARIaren ordezkaritzetako batera.



GOIENKARIA
Astero
18.500 etxetan.
Eskelen prezioa:
85 €.

MEZA

Pablo Uribe-Etxeberria Kortabarria

Jesuita

Caracasen hil zen 2006ko urtarrilaren 14n, 88 urte zituela.

Haren arimaren aldeko meza domekan, urtarrilaren 22an, 12:30ean, Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Isabel Iturbe Lizarralde

2005eko urtarrilaren 18an hil zen.

Lehen urteurreneko meza domekan, urtarrilaren 22an, 11:30ean, Antzuolako Errukizko Amaren elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

MEZA

On Victoriano Aranburu Basurto

Apaiza

Arrasaten hil zen, 2006ko urtarrilaren 11an, 76 urte zituela.
Goian bego.

Haren arimaren aldeko meza domekan, urtarrilaren 22an, 12:00ean, Izurieta San Pedro Apostolua parrokiaren.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko auzotako bederatziz elizairen izenean: Aozaratz, Areantza, Arkarazo, Galartz, Gellao, Goroeta, Izurieta, Larrino eta Mendiola

URTEURRENA

Pedro Gabilondo Iñarra

Lehen urteurreneko meza domekan, urtarrilaren 22an, 11:30ean, Antzuolako Errukizko Amaren elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Lucia Aranzabal Askasibar

Lehen urteurreneko meza domekan, urtarrilaren 22an, 11:00etan, Angiozarko San Miguel goiaingeruaren elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Isidro Romeo Mora

Maria Luisa Martinezen alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, urtarrilaren 22an, 12:30ean, Arrasateko Musakolako Santa Teresa elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Leon Madinabeitia Olalde

Arrasaten hil zen 2003ko abenduaren 31n, 77 urte zituela.

Urteurreneko elizkizunetara joandakoei, eskerrik asko sendikoen izenean.

*Zein erreza zen zu maitatzea,
ezinezkoa zutaz ahaztea,
beti maiteko zaitugu.*



Zure emaztea, seme-alabak eta ilobak.
Arrasaten, 2006ko urtarrilaren 20an.

ESKER ONA

Jose Antonio Igartua Oruesagasti

Bergaran hil zen 2005eko abenduaren 19n, 59 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2006ko urtarrilaren 20an.

ESKER ONA

Felicitas Basauri Maturana

Arrasaten hil zen 2006ko urtarrilaren 15ean, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2006ko urtarrilaren 20an.

**GIARTZU DERMESTETIKA ZENTROA**

Espaniako Azaleko Estetika Konpontzailearen Taldeko kide
Azalaren zahartzearen kontrol zientifikoaren unitatea.

Boni Laskurain 3 BERGARA
943 76 35 71

ESTETIKA PROFESIONALEKO KONTSLTA

Zerbitzua hobetzen, Giartzuk instalazio berriak inauguratu ditu.

Depilazioa eta kirurgia

Hanketan laser depilazioa egin nahi dut, baina beldurra emanen dit. Esan didate orban ilunak geratzen direla eta udan hankako ileak kendu egin behar ditudala.

I. Gaztañaga

I. andereñoa: laserbideko depilazioarekin ez dago zertan orbanik geratu; batuetan narratadura txiki batzuk irten dira, baina ordu batzuk pasatu ondoren desagertu egiten dira. Tratamenduarekin hasten bazara, ziurrenik udarako bi hilabete depilatu gabe egon zintezke; larrera, berriz, eguzkia hartu behar ez duzun egunetan egin genezake. Hori bai, hau egin ondoen ondo zaindu beharduzu. Zuk nahiago duzun bezala egingo dugu.

Aurreko baten komentatu nizun sudurreko ebakuntza egin nahi nuela. Ez dakit nitaz gogoratu zaren, baina sudurluzea naiz. Zure kontsultara joan nintzenean esan zenidan hezurrak guztiz formatu arte itxaron behar nuela; bueno, ba, orain 19 urte ditut eta ez dut gehiago itxaron nahi. Badakit zurekin estetikako zirujau batek lan egiten duela.

Loli A.

Loli, oso ondo gogoratzenean naiz zutaz; sarritan esan zenidan ebakuntza egitea nahi zenuela,




Maria Isabel Hurtado
Dermatologoa
e-maila: mi.hs@euskalnet.net

HITZGEZIDUNAK

Luma

	Greba	103	*Izena	Larrau	
	Garraiobidea				
	Nago				
	Zaren hori				
	Zoroa	Pasabidea			
	Asaldatu	Madarikazio, birao			
	Zakur	Seta			
	Itxura	Askaria			
	Kirol-lehiaketa	Modu	Errep., txori mota	Litroa	
	Oinez mugitu		*Deitura	Txiki, ahul	
	Amaiera	Gehiegia			
	Pare bat	Ardi hitz-elkarrekin		Ziklo tropikal	
	Loditasun	Osmioa	Potasioa	2. musika nota	
	Bezala, gisa	Noren atzizkia			

BILABILA7**UMOREGIROAN**

Kike Amonarriz

**BUSHEN HERIOTZEAN**

Gizaki
guztieei bezala,
George Bush-i ere heldu
zaio heriotza, eta, hiltzeko
trantzea pasa ondoren...
Infernuko atera iritsi da
(nora bestela?).

Atarian Luzifer dauka.
Sartu dira barrura eta
Infernua lehendik ere
gainezka daukalako kexu da
Luzifer:

– Zu sartzeko norbait
atera beharko dugu, bada!
Tira, has gaitezen leku bila.
Nik zenbait toki erakutsiko
dizut, ea gustukoren bat
aurkitzen duzun.

Ate bat ireki eta gelan
Richard Nixon ikusi dute:
mailu batekin harriak
txikitzeo lana ipini diote,
eta ikusten da gizona kristo
bat egina dagoela.

– Uf! Ez zait lantegi hori
askorik gustatzen -esan du
Bushek-.

Hurrengo atea ireki eta
barruan Ronald Reagan
ageri da, izotza baino
hotzago dagoen uretan
sartuta, jakuzzian jelatuta.

- Hori ere ez dago, bada,
niretzako egina -argudiatu
du Bushek-.

Beste ate bat ireki eta
Bill Clinton ikusi dute, sofa
batean etzanda, ondoan
makurtuta Monika
Lewinsky ari zaiola... Tira,
ulertzen didazue.

– Hau bai! Honetara
moldatuko nintzatekeela
uste dut -esan du Bushek-.


– Ziur al zaude? —

Luziferrek—
– Bai, bai, horretarako
balio dut.

– Oso ondo —Luzife-
rek—. Monika, zoaz lasai
nahi duzun lekura!

SOLUZIOAK

G	I	S	A	N	•	E	N
•	L	O	D	I	E	R	A
B	I	•	A	R	T	•	K
•	B	U	K	A	E	R	A
L	I	G	A	•	L	A	R
•	E	R	A	•	K	U	
T	A	N	K	E	R	A	•
•	O	R	•	T	E	M	A
E	R	A	U	Z	I	A	•
•	E	E	Z	U	B	I	A
Z	A	N	A	I	Z	A	
T	A	X	I	A	•	L	•
•	L	•	C	•	L	•	



Urtarrilaren 23a: 072 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA

Harpidedunen

txokoa


Sariak astero!

Astelehenean, urtarrilak 23, sari hauetako izen-abizenak izango dituzte.

Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

Urtarrilaren 23ko sariak



- Bi gonbidapen
FLORIDA - GURIDI
zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen
Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAn bi
menu jateko. (Saridun bakoitzari bi emango
zaizkio).



Bi gonbidapen **Donostiako AQUARIUMa** bisitzeko

Saridun bakoitzari bi emango zaizkio.

BALDINTZAK

- Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenean egubakoitza, 09:00etatik 18:30era.

Kuota:

Harpidetza kuota, 36 euro


2006 bukaerara arte.



Hauetako
aurreko zozketako
irabazleak.
Zure izena zerrendan
badago, **ZORIONAK!**

Bi gonbidapen Donostiako
AQUARIUMa bisitzeko.
(Saridun bakoitzari bi emango
zaizkio).

- Edurne Barrutia Urreta
(Aretxabaleta)
- Salvador Azkoaga Villar
(Gatzaga)



Paul Garitano
Bergara
SARIA:
ECRON DISK-MANA

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

GOITBBERRIAK**Toyotak urte osorako
luzatu dio babes
'Harmailatik' saioari.**

Bergarako EuskoAuto Toyotak urte osoko babes eskainiko dio GOITBko kirol saio nagusiari. Urrian hasi ziren, eta erabaki dute babes luzatzea. Astelehenero Julen Iriondo kazetariak aurkezten duen *'Harmailatik'* saioan publizitate finkoa agertuko da eta saioaren hasieran eta amaieran iragarriak eskainiko dira.

**Matrikulazio kanpaina dela eta,
iragarkiak GOITBn**

Debagoineneko eskola eta ikastola asko telebistan emititzeko iragarkiak egiten ari dira matrikulazio kanpainarako. Horiek guztiek urtarrilean eta otsalean ikusteko aukera izango dugu ibarreko telebistan. Hezkuntza eskaiza eta eskola zein ikastola bakoitzak dituen aukerak erakutsiko dizkigute iragarkietan ibarreko ikastetxeek.

**'Kantu eta jolasak'
ikus-entzunezkoaren
aurkezpena laster**

Debagoineneko Mankomunitateak urtarrilaren 30ean aurkeztuko du *'Kantu eta jolasak'* izeneko ikus-entzunezko. Aurkezpena Antzuolako Olaran kultura etxearen egingo dute, goizeko 11etan, eta Debagoineneko Mankomunitateko euskara teknikariekin asmoa dute ikus-entzunezkoaren zenbait pasarte erakusteko.

GOITBPROGRAMAZIOA

EGUBAKOITZA, 20	ZAPATUA, 21	DOMEKA, 22	ASTELEHENA, 23	MARTITZENA, 24	EGUASZTENA, 25	EGUNA, 26
Xabier Mendigurenkin solasean 22:15 Kontseilua erakundeoa Xabier Mendiguren izango da oraingo asteko gonbidatua, Oihana Elortzaren <i>Ilunpean</i> saioan.	Euskara sustatzeko planak 11:00 / 20:00 Arrasateko Zaharberri eta Bergarako Berriketan planak izango dira hizpide Goiatz Aranak zuzentzen duen <i>Behazulo-n</i> .	Euskarazko tokiko telebistak hizpide 22:00 Euskarazko tokiko telebisten etaurreko telebista digitalaren gaineran arituko da Goieneko zuzendarri nagusi Inazio Arregi <i>Berbaire</i> saioan.	Pilota kontuak 'Harmailatik' saioan 21:15 Asteburuko kirol ekitaldien gainbeigerrutua egingo du Julen Iriondok. Lau t'erdiko pilota txapelketari aipamena eginez.	Boliviara joateko aukera etxetik mugitu gabe 18:15 <i>Munduari bueltaka</i> saioan, Bolivia ezagutzeo aukera izango dugu; bertako herri, hiri eta mendiak bisitatuko ditugu.	Asier Altunaren 'Txotx' eta 'Topeka' 22:15 16 mm saioan, Asier Altuna zinemagile bergararren <i>Txotx</i> eta <i>Topeka</i> film laburrak ikusteko aukera izango dugu.	'Iparrorratza' saioan Kubara joango gara 18:15 Oraingo asteko <i>Iparrorratza</i> saioak Kubara eramango gaitu. Bidaia alternatiboa proposatuko digu Julen Arangurenak.
13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki biziunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Musika saioa. 14:30 M1: Eguraldia eta zerbitzuak. 14:35 Gezi-bideak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Iparrorratza. 15:30 M1. 15:35 Sendabelarrak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Didjeridu. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:35 Gezi-bideak. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Berbaire. 17:30 Eltze beroa. 17:45 Ildoratu. 18:15 Marrazki biziunak. Bilduma 11:30 Ilunpean: 18:45 Teknopolis. 18:45 Albisteak. 19:00 Klipak. 19:15 Jazz mintegia. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki biziunak. 21:15 Behazulo: Euskara sustatzeko planak 21:45 Berriak. 22:15 Ilunpean. 22:45 Albisteak. 23:15 16 mm. 23:45 Berriak. 00:15 Emisio amaiera.	07:55 Emisio hasiera. 08:00 Marrazki biziunak bilduma. 11:00 Behazulo. 11:30 Ilunpean: Xabier Mendiguren 12:00 Motzean eta Zera dio. 12:15 16 mm. 12:45 Jaun ta jabe. 13:45 Didjeridu. 14:15 Klip@. Musika taldeean bideoklipak. 14:45 Jazz mintegia. 15:15 M1. 15:45 Kirolak: Errugbi partida. Ordiziak liderra hartuko du mendean. 17:45 Erreportajea 18:15 Marrazki biziunak. Bilduma 19:15 Eltze beroa. 19:30 16 mm.. 20:00 Behazulo. Euskara bizierritzeko planak Arrasaten eta Bergaran. 20:30 Zera dio eta Motzean: 20:45 Ilunpean. Xabier Mendiguren. 21:15 Teknopolis. 21:45 Berriak: Euskarazko tokiko telebistak hizpide. 22:15 Elkartasun bideak. 22:45 16 mm. 23:15 Jazz zikloa. 23:45 Berriak. 00:15 Emisio amaiera.	07:55 Emisio hasiera. 08:00 Marrazki biziunak bilduma. 11:00 Klip bilduma. 11:30 Iparrorratza. Bidaien gaineko saioa Julen Aranguren aurkezta. 12:00 Didjeridu. 12:30 Eltze beroa. 12:45 Erreportajea. 13:15 Elkartasun bideak. 13:45 Klip@. Gaur egungo musika taldeean bideoklipak. 14:15 Jazz mintegia. 15:00 M1. Eguraldia eta burtsa tarrea. 15:35 Sendabelarrak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Behazulo. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:35 Gezi-bideak. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Didjeridu. 17:30 Behazulo. 18:00 M1. Motzean. 18:15 Klipak. Musika bilduma. 19:15 Iparrorratza: 19:45 Behazulo. 20:15 Zera dio eta Motzean: 20:30 Ilunpean: Xabier Mendiguren. 21:00 Didjeridu. 21:30 16 mm. 22:00 Berbaire: Euskarazko tokiko telebistak hizpide. 22:15 Elkartasun bideak. 22:45 16 mm. 23:00 Amaiera.	13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki biziunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Jazz mintegia: 14:15 Zera dio. 14:30 M1. 14:35 Gezi-bideak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Munduari bueltaka: bideak. 15:30 M1. Eguraldia eta burtsa tarrea. 15:35 Sendabelarrak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Behazulo. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:35 Gezi-bideak. 16:45 Albisteak. 17:00 Jazz. 17:30 Danbaka. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Erreportaje: 18:15 Munduari bueltaka: Bolivia 18:45 Albisteak 19:00 Klipak. 19:15 Harmailatik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki biziunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Ilunpean: Xabier Mendiguren. 21:45 Berriak. 22:15 Berbaire. 22:45 Albisteak. 23:15 Jazz zikloa. 23:45 Berriak. 00:15 Emisio amaiera.	13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki biziunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Musika saioa. 14:30 M1. 14:35 Gezi-bideak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Tektropolis. 15:30 M1. 15:35 Sendabelarrak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Behazulo. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Berbaire. 17:30 Zera dio eta Motzean: Olatz Iturbe. 17:45 Gaurkoak. 17:47 16 mm. 18:15 Teknopolis. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Didjeridu. 20:15 Marrazki biziunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Teknopolis. 21:45 Berriak. 22:15 16 mm: Txotx eta Topeka. 22:45 Albisteak. 23:15 Erreportajea. 23:45 Berriak. 00:15 Amaiera.	13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki biziunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea. 14:15 Motzean. 14:30 M1. 14:35 Gezi-bideak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Jaun ta Jabe. 15:30 M1. 15:35 Sendabelarrak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Behazulo. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Berbaire. 17:30 Zera dio eta Motzean: Olatz Iturbe. 17:45 Gaurkoak. 17:47 16 mm. 18:15 Teknopolis. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Didjeridu. 20:15 Marrazki biziunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Ilunpean: Xabier Mendiguren. 21:45 Berriak. 22:15 Berbaire. 22:45 Albisteak. 23:15 Behazulo. 23:45 Berriak. 00:15 Amaiera.	

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: goitb@goiena.com • Telefonoa: 943 71 23 95

TELEBEGI/Leire Kortabarria**Kopiatzea, bekatu larria**

Oraintsu irakurri dut Tele5ek artaziekin eta kolarekin ekingo diola bere arratsaldeko saio multzoari. Emma García gipuzkoarrak aurkezten duen *A Tu Lado* saioaren albora ez ei da behar adina jende inguratzen, Antena 3ko *gabiraien pasioaren* sukarrak eraginda, uste nahi izango du Tele5eko askok; arerioen indarrari baino gehiago, porrota norbere makaltsunari egotzi behar izango zaio da nire uste apala. Kontuak kontu, Tele5ek *kulebroia* ipiniko du laster tomataren aurretek, eta gero, *A Tu Lado*.

Emitza onik ez dagoenean, errazena aldatzea da; bekatu handiena, ondokoari kopiatzea. Audientzia baxuek urduritasuna sortzen dute, eta, norbere apustuari eutsi beharrean, besteari ondo irten zaion formula etxera ekartzen dute askotan kateek. Bain horrek inoiz gutxi funtzionatzen du. Tele5ek ikasita beharko luke lezio hori Antena3ri begiratuta. Bain inork ez du lagun hurkoaren esperientziatik eskarmentua hartzen. Nire apustua? Ez zaio ondo intengo.

Asier Altuna 'Kixi' '16 mm' saioan

16 mm:

Asier Altunaren Txotx eta Topeka film laburrak

Eguaztenean, urtarrilaren 25ean, 22:15ean

Aurkezlea: Amagoia Lasagabaster



Ikustekoa!

MULTIOPTICAS

R.P.S. N° 190/04 I.I.G.

Orain Bonardi izan zaitezke zu ere...

Sustapen honek 06/01/02tik 06/02/28ra arte balio du.

bonardi
armazoi berriak
38€

Orain Bonardi izan zaitezke zu ere...

Sustapen honek 06/01/02tik 06/02/28ra arte balio du.

J. Carlos Guerra 1
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

Bidebarrieta 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

C/ Nueva 15 - GROS
Tel.: 943 32 66 49
DONOSTIA

Koldo Mitxelena, 7
Tel.: 943 51 78 11
ERRENTERIA

Mendibil M. G.
Tel.: 943 63 99 01
IRUN

J.M. Barandiaran Enp.
Tel.: 943 88 99 88
ORDIZIA

San Frantzisko 23
Tel. 943 69 84 70
TOLOSA

HONDAKINEI BURUZKO TXAPELKETA

Proba ezazu zure sortze ahalmena!

Gaia: Hondakinak (hauen kudeaketa, sorrera, berziklapena...)

Entrega: Haraneko udaleketan jarrita dauden postontzietan edo hurrengo e-mailera bidalita: ingurumena@debagoiena.net

Epea: 2006ko urtarrilaren 25a.

Saria: 3 hondakin motentzako ontzi bat, modalitate bakoitzarentzat.


Marka ezazu X batekin zein txapelketan hartuko duzun parte eta azpiko lerroetan idatzi

slogana **aholkua** **asmakizuna** **txistea** **bertsoa** **hitz ezkutua**

Zure izen-abizena: _____ Tlnoa: _____

HITZ EZKUTUA

- 1- Puntu berde mugikorak erabiltzen duen ibilgailua
- 2- Hondakin txikia eta oso kutsakorra
- 3- R bikoitza duen haraneko herri handia
- 4- Kristala
- 5- Harraskatik bota behar ez den likido horia



- 6- Gu bizi garen eskualdea
- 7- Haraneko hondakinetaz arduratzen den erakundea
- 8- Txapelketa honen gaia
- 9- Puntu mugikorraren kolorea

Ken ezazu zama handi hori, erabili egunero sortzen ez diren hondakinak biltzeko zerbitzuak (garbiguneak, puntu berde mugikorra eta pilak jasotzeko ontziak.)



DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

Atzeskua

OIHANA ELORTZA

Iñaki Cerqueira 'Kirrin'

Askok ez dute zure izena jakingo. Ez dut uste. Iñaki etxe-koendako naiz; gainerakoek Kirrin deitzen dideat aspalditik.

Utzi diozu DJ Kirrin izateari?

Ez, baina uste dut urte onenak egin ditudala. 18 urtetik 24ra, askotan *pintxatu* dut eta Euskal Herriko hirugarren DJ onena ere izan nintzen. Baino halako baten, horretaz nekatu egin nintzen. Lana aste barruan eta DJ asteburueta. Larregi zen.

Eta lana aukeratu zenuen.

Batez ere diru gehiago ematen duelako. DJ Kirrin naiz oraindik, hala ere.

Etxean duzun musika estudioan inbertitu duzu lanean irabazitako?

Umetan solfeoa ikastera joan nintzenetik gustatzen zait musika. Soinu Teknikari ikasketak egin nituen Madrilen, eta Musika Informatika Gasteizen. Etxean bertan muntatu dut estudio txiki bat eta hementxe pasatzen ditut orduak.

CD bat grabatzten ari zara Oñati musika talde guztiekin orain, ezta?

Bai. 25 talde daude egun Oñatin gutxi gorabehera, eta guztiek argitaratu gabeko kantu bana joko dute. Otsailean hasiko gara grabatzen.

Nola sortu zen ideia?

Disko jartzailea

Ander Lizarralde esan zidan behin ea grabatuko nuen CD bat herriko hainbat talde ezagutarazteko. Txosna bat jarri genuen, eta han ateratako dirua erabiliko dugu orain talde guztien kantuak batuko dituen CD hori egiteko.

Non grabatuko duzue?

Taldeek gura duten tokian. Ziurrenez Errekalde auzoan dauden musika lokaletako bat egokitua eta erabiliko dugu.

Kultur LAB taldeak ere joko du, ezta?

Lehen esandako 25 talde horietatik gehienek punka edo rocka egiten dute. Gu gara hip-hop musika egiten dugun bakarrak.

Ez da jendeari gustatzentzian musika mota?

Badirudi ezetz; izan ere, beste herri batzuetan ere oso talde gutxi daude musika hori egiten dutenak.

Zenbat zarete taldean?

Lau. Hiru abeslari: dagoeneko oñatiarrak diren bi ekuadortarrek eta saharar bat. Eta ni neu, *disc-jockey-a*.

Ze musika mota entzuten duzu zuk?

Denetarik. Musika beltza, adibidez, asko gustatzen zait.

Ze maketa izan da grabatu duzun lehena?

Oñati Golpe de Estado taldearena. Sharon Stonerrekin ere ibili nintzen, baina bestea atera zen lehenago.

Nork erakutsi zizun DJ izaten?

Arrasateko bi lagunek. Solfeoa ikasi nuenean ikasi nuen 4x4 formula eta hori aplikatzea zela kontua esan zidaten eurek. Harrezkerot etxeen ordu asko sartuta ikasi dut, neure kasa.

Zein musika talde entzuten da segapotora deitzen dizugunean?

La Mala Rodriguez.

"Oñatin 25 bat talde daude, eta otsailean grabatuko dugu talde guztien CDa"

"Etxean dudan musika estudioan inbertitu dut lanean irabazitako dirua"

► Oñati / 27 urte



PIPERAUTSA

Garabiak

Madrilen bizi izan nintzen dozena erdi bat urtez. Aspaldi izan zen hori, Francok agintzen zuela, baina ordurako etengabe zegoen hiria obratan. Hain zen hau horrela, pasadizo bat zebilela bolo-bolo, nola herrixka bateko nekazariak, bisitan etorrera, esan zuen: "¡Qué bonito Madrid, cuando esté terminado!"

Goiztan, lanera natorrela Kanpazarretik Epelera, hor aurkitzen dut lehen obra, eta sekulako auto-txolopotea. Errepide bikoizketan manton noala, astia dut ikusteko Mojategiko obra, eta erregutzeko mendia ez dadila behera etorri, eman dioten haginkada beldurgarriari erantzunet. Ospitale ondotik sartuta, lehen garabiak Zerrajeran, etxebizitzak eraikitzeo; laster ugalduko dira lanak inguru horretan. Parean, erreka bestalde, garabi gehiago Gelmako orubean, han ere etxebizitzak kausa. Eta bulegora iristean, berriro garabiak, hauetako Biteri plazan, lurpeko aparkalekua dela-eta. Hori guztia 3 km inguruko ibilbidean!

Eta aurrera jarraituko banu, ez litzateke obrarik faltako: Aramaio erreka kolektorea, Erguingo etxebizitzak, Garaiako lanak... Eta epe ez oso luzean hastekoak dira Epeleko Araztegia, ibarreko tranbia, autopista Arrasate eta Eskoriatza artean, Olandixoko tunela, eta beste zenbait obra handi.

Auzo txikiko mahastizain honek ere pentsatzen du, bisita bakoitzean: "Bai polita Arrasate, amaitzen dutenean!".

MIKEL IRIZAR
www.goiena.net/blogak/piperraутса



TOYOTA

Orain Bergaran.



EuskoAuto

Olabarrena z/g BERGARA
 943 76 23 85

BERGARA

EUSKOAUTO

ELORREGI